



## Sona

Eta itzala, eta aitortza ditu ezkila jotzaileen artean  
Tomas Ganboa Ganboak / 2-3

**Graciela Prado,**  
Polonian jokaturako  
Para Pole Sport  
Mundialetan txapelduna / 17



**Kontseiluak 'botere  
judizialaren esku  
hartzeak' salatzeke  
manifestazioa deitu  
du Bilbon / 5**

**Itsasperrin jolas  
parke berria dago,  
baina aparkalekuen  
proiektua berraztertzen  
ari dira / 7**

**Mikel Garziandia Goñi  
etxarriarra  
Palentziako gotzain  
izendatu du aita  
sainduak / 8**

**Sakana  
bizigarriagoa  
irudikatzen duten  
ipuinak saritu ditu  
Anitzarteanek / 9**

**Jauregi-Fidel eta  
Vazquez-Larrion,  
Altsasuko aizkora eta  
crossfit apustu  
handirako prest / 18-19**

**Olatzagutia zinema  
platoa bihurtu zen  
Imanol Retaren  
'Última visita' film  
laburrerako / 21**

### ZUTABEAK



SAKANAKO  
AUTOPISTA  
ELEKTRIKORIK  
EZI / 4



JAVIER  
CASTEIG  
BARANDIARAN  
/ 4



IRATI  
EIZAGIRRE  
SAGASTIBELTZA  
/ 22

**Eva Azpilicueta  
antzezle altsasuarra  
dantzaren munduan  
sartu da, 'Everyone'  
ikuskizunean / 22-23**





# "Gure etsaia elektrifikazioa da batez ere"

**JOAKIN CORCUERA GIL** NAFARROAKO EZKILAZAINEN ELKARTEKO KIDEA

Tomas Ganboa ezquila errepika erakustaldia hartu zuen Arruazuk larunbatean. Jole arbazuarra erreferentea omendu eta ezquila errepikak kalera ateratzeko modua izan zen

**Alfredo Alvaro Igoa** ARRUAZU

Komunitatearena da. Beti du estaldura. Beti ditu hartzaileak. Ez du argindarrik behar. WhatsApp baino hobe da ezquila errepika. Hala adierazi zuen Nafarroako Ezkilazainen Elkarteko kide batek larunbatean. Jakina, ezquila errepikazari zen, belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun soinua hizkuntzaz. Goiz eta eguerdian Arruazu halako doinuak bete zuten elkarteko kideek, eta hala nahi izan zuten herritarrek ere.

**Zergatik antolatu duzue Tomas Ganboa ezquila errepika erakustaldia?**

Orain dela 60 bat urte-edo, Ihabarko parrokoa Jose Cruz San Juan zen. Uste dut festetan zela. Elizara zihoan, ezkilak jotzera, eta mutil pare bat-edo ikusi zituen. Broma giroan, berarekin igotzea proposatu zion. Baita haiek onartu ere. Igo ziren, ezkilak jo zituzten eta parrokoa aho bete hortz geratu zen. Izugarri gustatu zitzaion. Esan zion zeinen ongi jo zuten. Eta erantzun zioten: "hemen, Sakanan, ia-ia mutil guztiak". Eta ideia horrekin lehia-keta antolatu zuen. Tomas Ganboak irabazi zituen aurrenak, eta une batean antolatzeari utzi zioten Tomas zelako irabazle bakarra. Hori oroitu nahi izan dugu, baina lehiaketarik gabe,

erakusketa baizik. Sakanan errepika gorde egin da, asko gainera. **Halako erakustaldi bat antolatu duzuen lehendabiziko aldia da?**

Bai, lehenengo aldia da, zeren gure elkarte oso berria da, 2019an sortu zen. Ekimen batzuk egiteko aukera aztertu genuen, haien artean erakustaldia.

**Jarraitzeko asmoz?**

Ongi ateratzen bada, bai. Momentuz, ezkilazain batzuk esan dute: "hurrengo nire herrian". Beraz, baietz espero dut.

**Jarraituz gero, Tomas Ganboa izenarekin segituko luke?**

Baietz suposatzen dut. Gainera, Tomas elkarteko ohorezko presidentea da.



**"GAUR EGUN GUZTIZ BORONDATEZKO LANA DA. AHAL DENEAN JOTZEN DA"**  
JOAKIN CORCUERA GIL

**Gaurkoa bezalako egunak balio dute ezquila errepikaren ondare hori ikustarazteko eta entzunarazteko.**

Bai, ohitura gordetzeko, eta gure lana pixka bat aldarrikatzeko. Eta, gainera, orain dela gutxi Unescok materia gabeko ondare izendatu zuen eskuz egiten den ezquila errepika.

**Zer moduz dago ohitura? Zer osasun du?**

Badago jende gaztea, benetan gutxi, baina badago jende gaztea. Uste dut pixkanaka-pixkanaka berpizten ari dela.

**Ezkilak jotzeko kanpandorreak behar dira. Horien egoera ere zaindu beharko da.**

Bai. Gure etsaia elektrifikazioa da batez ere. Ezquila jotzea elektrifikatzen den moduaren arabera, eskuz jotzeko aukera egon daiteke edo ez. Ezkilak jotzeko ongi kokatutako mailuak jarri daitezke, aukera emateko eskuz jotzeko. Baina zenbait tokitan gurrpil handia eta katea jarri dituzte, eta orduan ezin da eskuz ezkilarik jo. Guk esaten dugu eskuz egiten denak arima duela. Elektrifikatutakoa da oso mekanikoa, hotza, eta beti berdina. Ez da gauza bera. Guk nabaritzen dugu.

**Ezkilak jotzen dituztenak igo eta ezkilaren osasunari ere begiratzen diote; zartatuak, hausturak...**

Bai, eta askotan behar dute. Gainera, orain elektrifikatu baldin bada, jada kanpandorre ez da igotzen, edo oso gutxitan igotzen da. Eskuz egiten baldin baduzu, jo behar duzu, eta igotzen zara. Orduan ikusten dira nola-koak diren, eta ikusten da koipeztatu behar diren, lanen bat egin behar den edo mihia gaizki ote dagoen. Batzuetan penagarri daude.

**Beste garai batekoekin alderatuta, gaurko ezquila joleen lana beste bat da, ezta?**

Bai. Lehen beharbada lan bat zen, gainera ordaindua. Baina gaur egun guztiz borondatezko lana da. Ahal denean jotzen da. **Zergatik sortu zenuten Nafarroako Ezkilazainen Elkartea?**

Behin Iruñeko eta Artaxoako ezkilazainak elkartu ginen eta beste leku batzuetan ere ezkilak eskuz jotzen direla aipatu genuen. Denak elkartzeko ideia sortu zen. Bazkaria antolatu genuen. Lehendabizikoa Artaxoan eta bigarrena Olatzagutian. Azken horretan ikusi genuen uste baino gehiago ginela, eta elkarte egitea erabaki zen. Alde batetik, gure indarrak elkartzeko, gure asmoak eta kezak partekatuzko. Beti bezala, elkarrekin egiten dena beti da hobe.

**Ezkila errepikak sustatzeko asmoz?**

Ezkila jotzeak sustatzea, bai; errepikak eta kanpai iraulketa. Sakanan batez ere errepikak egiten dira. Baina Erriberan, esaterako, kanpai iraulketa egiten da, hau da, ezkilak bueltak ematen dizkiete. Baina, batez ere, ezkilak eskuz jotzea, hori gorde nahi du elkarteak. Leku bakoitzean bere jotzeko modu bereziak mantentzen dituzte. Egokiak dira erromeria baterako, edo... Bakoitzak berea du. Azken finean, hizkuntza bat da. **Sua zegoela, angelusa, ekaitza zatorrela...**

Hori da. Leku bakoitzean desberdin egiten dute. Hori oso hizkuntza polita da, mantentzeko eta jakiteko. Orain elkartearen helburua da Nafarroako jotze modu guztiak biltzea. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ma-



teria Gabeko Ondareko Katedrerekin batera hasi gara biltzen. Lan sistematizatua egiten ari gara: prestatutako inkestak, grabazioak eta dena. Egin dugu Garden, Lekarozen, Los Arcosen, Altsasun... Eta beste hainbat tokitan. Guretako oso garrantzitsua da hori biltzea, dena unibertsitateko artxiboan izatea. Lan horren aurkezpena gaur eginen dugu.

**Elkartean herri askotako jendea dago?**

Santacara, Allo, Los Arcos, Olatzagutia, Altsasu, Elia, Artaxoa, Iruñea... Segur aski bakarren bat ahaztuko dut. Mordo bat, Nafarroa guztikoak.

**Beraz, asmoa eta nahia badago.**

Bai. Elkarteak 60 kide inguru ditu. Pentsatzen dugu nahikoa ordezkari bat ona dela.

**Halako egun bat antolatzeak zer ematen dio elkarteari?**

Jendeak gure lana ongi ezagutzea. Jakin dezala ezkilak eskuz jotzeko ohiturari eusten diogula.

**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Iruztzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Iruztzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobe



Tomas Ganboa Ganboa ezkila jole sakandarrez lagunduta.



Tomas Ganboa Ganboa ezkila joleen jardunari buruzko hitzaldian.

Kalean bertan bi ezkila ditugu eta jendea jotzera eta ezkilak jotzen ikustera etor daiteke. Batez ere ikusteko gure lana nolako den. Aldarrikapen bat da.

#### **Elkartearekin harremanetan jartzeko, zer egin behar da?**

Orain web orria eginen dugu. Baina, bitartean, [campanerosnavarra@gmail.com](mailto:campanerosnavarra@gmail.com) da gure posta elektronikoko helbidea, hara idatzi daiteke harremanetan jartzeko.

#### **Herrian ezkilak jo nahi dituenak zer egin behar du?**

Lehendabizikoa da, uste dut, apaizekin harreman ona izatea. Hori lehendabizikoa da, giltza eta baimena lortzeko. Ezkilak

ez dira gureak. Ezkilak elizaren dira. Ondoren, kanpandorrera igo ezkilak nolakoak diren ikusteko, fisikoki nola dagoen hura. Eta jotzen hasteko, ez badakizu, gurekin harremanetan jarri, eta hasiko gara. Herrian ziurrenik egonen da adinekoren bat edo pertsona jakintsuren bat ziurrenik dakiena garai batean nola jotzen zen eta zer errepika. Hasieran, seguruenik, ezetz esanen dute. Beti. Baina, ondoren, pixkanaka-pixkanaka hasten da: bada, erromeria honetan, edo festa honetan, ezkila honekin, bestearekin... Bai, beti ateraten da.

## "Tomasena errepikatzen saiatzen naiz"

AITOR SATRUSTEGI GANBOA TOMASEN ERREPIKAK GOGOKO DITU

Tomas Ganboa Ganboaren omenez, ezkila errepika erakustaldia hartu zuen Arruazuk larunbatean, udalak eta Nafarroako Ezkilazainen Elkarteak antolatuta. Aitor Satrustegi Ganboak erakustaldiko aurreneko ezkila errepika jo zuen, gainontzeko parte hartzaileei ongietorria emateko. Satrustegiz aparte, beste zortzi ezkila jotzaile igo ziren kanpandorrera ezkilei doinua ateratzera: Gorka Madinabeitia, aretxabaletarra; Miguel Bañales, artaxoarra; Joaquin Miguel Mayo, iruindarra; Miguel Angel Irurtzun, ubertearra; Manuel Gorriti, lizerratarra; Max Spinu eta Angel Herrero, olaztiarrak eta Juanjo Calvo, ziordiarra. Bakoitza bi minutuko bi txandatan aritu zen ezkilak jotzen. Doinu ezagunak eta asmatutakoak tartekatu ziren emanaldietan.

#### **Zer sentitu zenuten arbazuarek herriak halako egun bat hartuko zuela jakitean?**

Gustura hartu genuen. Tomasek merezita dauka. Makina bat urte bota ditu hor, kanpandorrera igotzen. Eta, oraindik ere, ahal balu ezkilak jotzera igoko zen segur aski. Pertsona omenaldiak hobe bizirik daudela, hiltzen direnean baino.

#### **Arbazuarek duela bi urte omendu zenuten, ezta?**

Bai, festetan egin genuen. Orain berririo suertatu da, eta ongi iruditzen zait. Festa giro polita herrian izatea ongi dago noizbehinka.

#### **Nondik heldu zaizue arbazuarek ezkilak lotura hori?**

Ez dakit. Nik txikitatik aditzen nuen. Lehen, uste dut, Tomasen osaba bat zela jotzen zuena. Betidanik aditu dugu, gustura.

#### **Garai batean, gainera, ezkilak maiz jotzen ziren.**

Lehen, badakizu, meza asko zeuden, eta aldi guztietan ezkilak jotzen ibiltzen ziren.

#### **Gaur egun ezkilak jotzen ditu bakarren batek?**

Ez, ez. Hori bukatu da Arruazun. Normala da. Elizara ia inor ez da joaten. Eliza, badakizu, toki pribatua da, edozein ezin da sartu. Apika ezkila dorrea aparte balego, beharbada ezkila joleren bat egonen litzateke. Baina, elizatik pasatu behar hori bahe handia da.

#### **Ez kilak mekanikoki jotzeko sistema duzue Arruazun?**

Hala jarri zuten, bai. Bada zerbait, baina ez da zena, jakina. Oso aspergarria izaten da. Baina, behintzat, bada zerbait.

#### **Zuk gaur joko duzu?**

Esan zuten kanpotar jendeak etorri behar zuela. Nik noizbehinka jotzen dut. Eta, Tomasi omenaldi bezala, esan nuen nik ere jotzen saiatu nahi nuela. Zerbait egin dugu.

#### **Nondik duzu ez kilakiko gustu hori?**

Ez dakit. Txikitatik. Etxean beti ezkila txiki batzuk jotzen nituen. Ez dakit zergatik, baina beti gustatu izan zait, batez ere Tomasena. Ez berez ezkila. Baina Tomasen errepika, bai.

#### **Eta Tomas zuzenean jotzen ikustera igo zara noizbait?**

Askotan egon naiz Tomasekin. Lehen, San Joan bezperan, ohitura zen ezkila dorrea edozeinendako zabaltea. Txikitatik joaten ginen, eta orduan ikusten genuen han Tomas, ezkilak eta beste jendeak ez du gogorik. Ni igotzen naiz San Joan bezperan jotzera. Aurten haur batzuk etorri ziren nirekin, hor egon ziren begira, bai.

**Errepika hori eta kitto? Ez duzu gehiagotan jotzen?**  
Ez, hori da nik jo dudana bakarra.

**Zenbat ezkila daude Arruazuko kanpandorrean?**

Jotzen direnak bi dira: hildakoa esaten zaiona, eta bestea. Hildakoaren doinua itzalagoa da. Bestea, berriz, arinagoa. Eta biekin musika egiten saiatu. Batzuek lortzen dute, beste batzuek ez. Goi-goian txikia dago. Esaten zuten haur txikiren bat hiltzen zenean jotzen zela. Txikia erlojuarekin doa, aparte halako kasu berezietan jotzen zen.



#### **"LEHEN, SAN JOAN BEZPERAN, OHITURA ZEN EZKILA DORREA EDOZEINENDAKO ZABALTZEA"**

#### **Bi ezkila horien mihiak nola mugitzen dituzue?**

Arruazun, sokekin. Biak atzean dagoen zura bati sokaz lotuta daude. Eta soka horiekin mugitzen dira.

#### **Erakustaldia pizgarri izan daiteke zu edo arbazuarren bat kanpandorrera gehiagotan igotzeko?**

Ez dakit. Nik gustura jo dut. Jendea, gainera, gustura egon da. Herrian nago, Tomasengatik da, gustura, besterik gabe.

#### **Gustatuko litzazueke arbazuarek bakarren batek errepikak jotzen segitzea?**

Ongi egonen litzateke, ongi joz gero, jakina (kar, kar, kar). Gaur guk gurea jarri dugu, eta ikusiko dugu gero zer pasatzen den.

#### **Arruazun ezkila zaletu pila elkartuta, elkarrekin hizketatzeko aukera bada.**

Jende berria ezagutu dugu. Baina ni ez naiz ezkila jolea sentitzen, eta ez nago mundu horretan sartuta. Eta, gainera, ez daukat asmorik. Erakustaldia gustura egin dut, baina hortik aurrerakoa, ez.





ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

## Holokaustoa

Ezaguna da Hitler buru zuen Alemania naziak eragindako Holokaustoa, non 6 milioi judu inguru erail zituzten. Orduko hartan, arraza zen arrazoia naziek judurik jabeko Europa bat eraiki nahi izateko.

Handik gutxira, Palestina bitan banatzeko plana onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak: hebrear estatua batetik, eta arabiar estatua bestetik. Horrela sionismoaren helburua beteko zela uste zuten, alegia, Palestinan antisemitismotik libre bizi ahal izatea.

Hori gertatu zenetik, 80 urte beteko dira laster, eta urte hauetan guztietan, bertan ez da girorik egon. Liskarrak eta gerrak etengabeak izan dira, tartean bake saiakeraren bat izan delarik.

Kate horren azken katebegia orain ikusten ari gara. Hamasek egindako sarraskiari Israelek begia begi truk estrategia erabiliz erantzun nahi dio edo, hobeto esanda, Gazako biztanle guztiak zigortu edo akabatu nahi ditu horregatik. Beste Holokausto baten atarian gaudela esan liteke. Kasu honetan, lehenengoa sufritu zuenak eraginda.

Israelgo agintariak defentsa eskubidea aipatzen dute, baita purutasuna eta erlijioa ere. Eta ez hori bakarrik, baizik eta, arerioa desagerrarazi nahi dute. Esan eta egin, herri oso bat sunsitzeko ahalegin guztiak egiten ari dira; beste Holokausto bat, azken finean. Bitartean, mendebaldeko agintariak gerraren alde egin

dute, Ukrainian egin duten bezalaxe. Konponbidea da armak eta armak etengabe bidaltzea inolako bake saiakerarik gabe.

Gizakiok zein gaitasun eskasa daukagun atzera begiratzeko eta egindako akatsetatik ikasteko. Zenbat ume, haur, gazte, heldu eta zahar hil beharko dira hori ez dela bidea ulertzeko? Noiz ulertuko dugu indarra ez dela arrazoi? Noiz ulertuko dugu bortizkeria edota armak erabiliz garaipenak lor daitezkeela, baina bakea ez?

Bide honetatik jarraituta, antisemitismotik libre bizi beharrean, antisemitismoak gora egiten duela iruditzen zait, munduko judu guztien kalterako.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Naturagune publikoak pribatizatuz

#### SAKANAKO AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZI PLATAFORMA

Azken hilabeteetan aurreratzen genizuen moduan, autopista elektrikoaren proiektua aurrera eramateko urratsak ematen doaz. Izan ere, aurki eman diote lehen onarpena Forestalia enpresa pribatuak bultzatzen duen proiektuari. Enpresak sustatzen dituen bi linea elektrikoetako bati, Kyoko delakoari, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena (IGEA) onartu diote. Lineak Sakana guztia zeharkatuko luke eta ebakidura latza eragingo luke gure ibarrean.

Gogora ezazue Red Eléctrica de Españak eta Forestalia enpresa pribatuak 400 KVko bi autopista elektriko eraiki nahi dituztela argindarra garraiatzeko, inolaz ere Sakanari edo Nafarroari zerbitzua emateko. Bi autopistak bata bestearen ondoan joanen lirateke, gure bailara bere luzera guzian

zaurituko luketen bi azpiegitura erraldoi eta paraleloak osatuz.

Proiektua gauzatzeko lehen urratsa eman duten arren, oso baikorrak gara oraindik: batetik, jaso duen onespenera baldintza zorrotzak jartzen dizkietelako, eta bestetik, proiektuak Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuaren onespenera behar duelako.

Gure plataformak eginiko alegazio dezente onartu dituzte, bi proiektuak paraleloki eraikiz gero, kalteak metatu eta biderkatuko liratekeela salatzen baikenuen eta horregatik, Forestalia, REEren linearen gainean joatea behartzen dute Nafarroako ibilbide gehienez, baita Sakanan ere. Era berean, linea hau herriguneetatik gutxienik 500 metrora egon beharko dela zehazten du IGEAK.

Baina oztoporik handiena Nafarroako Gobernuaren

Ingurumen Departamentuan dauka linea honek, "ez baita bateragarria babesturiko espezieen kontserbazioarekin", Jose Maria Aierdi kontseilariak esan duenez. Euskal Autonomia Erkidegoak ere "basabizitzari eraginaren liokeen kalteagatik" hainbat alegazio aurkeztu ditu. Gogoan izan erkidegoen ingurumen sailen onarpena behar dela proiektuak aurrera egin dezan.

Bukatzeko, gure harridura adierazi nahi dugu REEren eskumena den goi tentsioaren kudeaketa enpresa pribatu bati ere eman izana, eta bere sare pribatua REEren linea gainean joatea ahalbidetu izana. Eta onartezina iruditzen zaigu, halaber, oraindik ere, REEren linearen inguruan aldeko edo kontrako txostenik ez dagoenean, dagoeneko, Forestaliarena, onarturik ez dagoen honen gainean joanen dela esatea.



## OBJEKTIBOTIK

### GUAIXE aldizkariak betetako ordenagailua

Pikuxar Euskal Txokoan berrerabilpena oinarri hartuta, GUAIXE aldizkariak banatzeko buzoi xelebrea egin dute; ordenagailu bat ireki, osagarri guztiak kendu eta barruan sartu dituzte aldizkariak, tabernara gerturatzeko denak eskuragarri izan dezan.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

#### Tirada:

3.200

#### LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
[kirrolak@guaixe.eus](mailto:kirrolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernu

# Euskaltzaleek Bilbon dute hitzordua

Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako manifestazioaren bidez "botere judizialaren esku hartzeak" salatu, "euskararen normalizazioan aurrera egiteko" deia zabaldu eta "herritarren eskubideak erdigunean jartzeko" deialdia eginen da

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Iparaldean eta Nafarroan ohituta gaude euskararen biziberritzeari jarritako oztopoekin. Legeak, haien mugak, eragile batzuen jarrerak, epaiak... Horretara ohituta, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) hizkuntzaren dako babesgune gisa irudikatzen genuen. Baina han ere txakurrak hanka hutsik. Zeren Nafarroan bezala, EAEn ere euskararen biziberritzea helburu duten neurrien kontra auzitegietatik jasotako sententziak areagotzen joan dira azken urteetan. Horietan guztietan, botere judizialak euskararen ofizialtasunaren berrinterpretazio bat egiten ari dira, eta gaztelaniaren nagusitasuna zalantzan jarri dezakeen edozein neurri "Konstituzioaren kontrakotzat" jotzen hasi dira epaileak. Azken adibideak EAEko Udal Legearen eta garapen dekretuaren gaineko azken epaiak dira, euskararen normalizazioaren aldeko politika publikoak egiteko jokalekua deseraiki dutenak. Euskalgintzaren Kontseiluan argi dute "ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza politika aurrerakoiki mugatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak murrizteko joera gorakorra: oldarraldi bat". Horregatik, Ol-



Euskaltzaleen Kontseiluko Idurre Eskisabel Larrañaga Bilborako deia egiten.

*darraldiaren aurrean euskarekin bat, euskaraz bat* leloa duen manifestazioa deitu du larunbaterako. Bilboko Euskaldunatik abiatuko da, 17:00etan. Manifestazioa Jesusen Bihotza plaza, Kale Nagusia, Plaza Biribila eta Buenos Aires Kalea zeharkatuko ditu Bilboko udaletxe parean bukatzeko.

**Bilbora joateko hiru arrazoi**

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabel Larrañagak azaldu duenez, "auzitegiak euskararen normaliza-

ziorako politika publikoak bideratzen dituzten arau eta neurriak baliogabetzen ari dira, horrenbestez euskararen normalizazioa oztopatzen. Beste era batera esanda, botere judiziala ari zaigu hizkuntza politika egiten eta determinatzen; argi uzten nork duen azken hitza". Eskisabelek nabarmendu duenez, epai guztietan "elementu komunak daude: ukatu egiten da euskararen hizkuntza gutxitu eta zaurgarri izaera, eta, horrenbestez, politika publikoen bidez euskara sustatzeko premia eta betebeharra".

Horren adibide argizat EAEko Udal Legea garatzeko dekretuaren kontrako epaia jarri du.

Eskisabelek euskaltzaleak Bilbora joatera deitu ditu, eta azpimarratu du euskara zaurgarritasun egoeran dagoen hizkuntza dela. Horregatik, "gertatzen ari dena are eta larriagoa da. Izan ere, munduaren egungo testuinguruan aurrera begirako erronkak biderkatu egin zaizkio euskarari eta euskaldunon komunitateari". Eskisabelek gogoratu duenez, "azken hamarkadetan gure errealitate soziolinguistikoa asko aldatu da, eta horregatik, euskalgintza aho batez ari da esaten azken denboretan jauzi bat behar dela hizkuntza politketan. Diagnostikoa garbia denean eta tresna berri eta indartsuen premia erabatekoa, orain arteko lana eta adostasun sozialak ere eraisten ari zaizkigu". Hori dela eta, "epaiek eragingo dituzten atzerapausoak onartezinak" direla nabarmendu du; "euskararen normalizazioan aurrera egiteko momentua da, ez atzera egitekoa".

Aldi berean, idazkari nagusiak nabarmendu nahi izan du "pertsonek guztiek beraien eskubideak bermatuak izan" beharko lituzketela. "Aldiz, egunero urratzen dira euskal hiztunen hizkuntza eskubideak. Euskararen normalizazioa oztopatzeak milaka herritarren hizkuntza eskubideen urraketaekin segitzea dakar berarekin, eta, horrenbestez, justizia soziala, gizarte kohesioa eta bizikidetzak kaltetzea". Horregatik, Eskisabelek ziurtatu duenez, "euskaldunek gainerako herritarren adinako eskubideak bermatuak izatea eskatzen dute, beste inori eskubiderik kendu gabe". Kezka du "sektore batzuetatik zabalitzen ari diren diskur-

tsoekin, herritarren hizkuntza eskubideak langileen eta lan eskubideen kontrakotzat" jartzen dituztenak. "Elkarren osagarri eta indartzaile diren eskubideak dira, sindikatuen eta lan arloko eragileen gehiengo zabalak azpimarratu bezala: langileek euskara ezagutzeko, lan jarduera euskaraz garatzeko eta lan harremanak euskaraz burutzeko eskubideak dute. Finean, hizkuntza eskubideak lan eskubide ere badirelako", gaineratu du Eskisabelek.

## Kanturako eta dantzarako gonbidapena

Ibilbide osoan zehar hainbat kantujiratako taldek giroa animatuko dute eta jendeari indarrez kantu egitera gonbidatuko zaio. Manifestazioaren akaberan, musikari ezagun batek kantu euskaltzale bat eskainiko du. Segidan, Eskisabelek hartuko du hitza. Eta, ondoren, Ihitz Iriartek Sustrai Colinak idatziriko bertsoak kantatu bitartean manifestariak soka-dantza dantzazera gonbidatuko dituzte. Soka-dantzaren bitartez, euskararen komunitatearen talde lana irudikatuko da. Soka dantzako tutoriala *labur.eus/nCHRR* webgunean dago. Bukatzeko, *Kontrapas* abestia kantatuko dute manifestariak.



# Bi finalista Nafarroako Txistorra Lehiaketan

Irurtzungo Galarza eta Etxarri Aranazko Mariñeletxe harategietako txistorrak izan ziren finalistak. Antolakuntzak aitortza egin nahi izan die "bere produktuaren eta lanaren kalitate handiagatik nabarmentzen diren hurbileko profesionali"

IRURTZUN / ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Harakinen Gremioak antolatuta, XVII. Nafarroako Txistorra Lehiaketa jokatu zen Iruñean igandean. 43 harategik aurkeztu zituzten beraien txistorrak lehiaketara, joan zen urtean baino lau gehiagok. Epaimahaia gastronomia, ekoizle, ikerketa eta unibertsitate arloko hamabost kidek osatu zuten. Txistorrak dastatu ondoren, hamar finalistak aukeratu zituzten. Irabazlea Uharte Iruñeko Irigibel harategia izan zen. Carlos Irigibel Lanzetak 2016an ere izan zen txapelduna. Finalera iritsi zirenen artean bi sakandar zeuden: Patxi Galarza Larraioz, Irurtzungo Galarza Harategikoa eta Aitor Mariñelarena Mañeru, Etxarri Aranazko Mariñeletxe harategikoa.

Lehiaketaz aparte, antolatzaileek txistorraren inguruko festa ere antolatu zuten. Ospakizun horretan 150 kilo txistor banatu ziren. Pintxo eta edaria euroan



Patxi Galarza Larraioz eta Aitor Mariñelarena Mañeru diplomekin. HARAKINEN GREMIOA

eskuratzeko aukera izan zuten. 4.000 txartel bi ordutan saldu zituzten. Ospakizunak aurkezpenetarako ere balio izan zuten: txistorraren Babes Nazional Iragakorraren izendapenaren baitan, Adierazpen Geografiko

Babestua eta Nafarroako Txistorra izena duen etiketa. Nafarroako Gobernuaren Intia erakundeko hainbat ordezkari presente izan ziren eta etiketa horren berri eman zieten harakinei eta hartan interesa zutenei.



## Bizitzaz beteriko hilerriak

Domu Santu egunarekin, baina aurretik ere, ibarreko hilerriak kolorez eta jendez bete ziren. Asko izan ziren asteazkena baino lehen joan zirenak, hilobiak edo horma hobiak txukundu eta haietan loreak jartzera, baratzeetakoak batzuk, erositakoak besteak. Asteazkenean kanpo santuak sakandarren topaleku bihurtu ziren.

## Errepresaliatuak gogoan

1936ko estatu kolpearen ondorengo errepresio aldian Uharte Arakilen hiru fusilatu eta bestelako errepresio egoerak bizi behar izan ziren. Haiek guztiak "gogoratzeko eta presente izateko", Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen taldeak eta udalak ekitaldia antolatu zuten igandean, gertatutakoa oroitu eta berriro ez gertatzeko nahia adierazi zuten.







Irurtzundarrak San Martin eta Lizarra kaleen bidegurutzean. ARTXIBOA

## Irurtzungo Udalak bi kale berarendako nahi ditu

Lizarra eta Bi Ahizpe kaleak errepideak dira eta Nafarroako Gobernuarenak dira

### IRURTZUN

Martxo akaberan zabaldu zen Irurtzungo saihebidetia herri erdigunetik trafikoa kentzeaz aparte, bestelako aukerak eskaintzen ditu. Esaterako, festetan plaza ingurua oinezkoendako izan zen bakar-bakarrik. Zehazki, Lizarra eta San Martin kaleen arteko bidegurutzetik Lizarra eta Ugaldeta kaleen arteko bidegurutzera arteko zatia. Baina hori egiteko Nafarroako Gobernuari eskatu behar dio baimena Irurtzungo Udalak, Lizarra kalea berez NA-7010 errepidea baita, eta haren jabetza foru administrazioarena da, bera arduratzen da mantentze lanez. Beraz, kale horretan udalak edozein lan egin nahi duen bakoitzean gobernuaren baimena behar du.

Horren jakitun izanik, Irurtzungo Udalak kale horren jabetza berari ematea eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Unai Razkin Iriarte alkateak azaldu duenez, "Lizarra kalearekin batera Bi Ahizpe kalearen zati bat ere guri ematea eskatu dugu, Matxain jatetxetik Bi Ahizpe eta Aralar kaleen arteko bidegurutzera arteko zatia". Bi Ahizpe kalea berez NA-2409 tokiko errepidea da. Bi jabetza aldaketa horien zergatia azaldu du Razkin: "errepide izendapena kenduta kale bihurtuko lirateke biak. Eta Lizarra eta Aralar kaleen artean saihebidetia egin dagoenez, hura eta Akaborro industrialdearen parean dagoen kalea errepide izatera pasatzea nahi genuke". Gobernuak uda-

laren nahiaren berri badu dagoeneko.

### Plana

Irurtzungo Udalak egin nahi duen mugikortasun planera bi erabaki handi lirateke bi kale horien gainekoak. Gainera, dagoeneko saihebidetia egin dagoenez, trafiko ugari ez da herri erditik pasatzen. Alkateak azaldu duenez, mugikortasun plana heldu den urtean egin nahi dute. "Mugikortasunaren ikuspegitik herria nola dagoen aztertu eta diagnosis egin nahi dugu. Horretarako, parte hartze prozesu bat martxan jarriko dugu", jakinarazi du.

Plaza inguruan zer egin ziur aztertuko dela azaldu du, baina herriko beste kale batzuk ere aztertu beharko dituztela azaldu du, besteak beste, kultur etxe ingurua, Trinitatea edo Bi Ahizpe kalea bera. Izan ere, herriko mugikortasuna aztertzeo zenbait eragilerekin aurreneko kontaktua izan zituen udalak aurreko legegintzaldian.

Irurtzungo mugikortasunari buruzko parte hartze prozesua abiatzeko dagoen bezala, saihebidetia bigarren zatia ere egiteko dago. Lan horiek Izurdiagan egingen ditu Nafarroako Gobernuak. Herriko saihebidetik Nafarroako Autopistara (AP-15) sarbidea egingen da Iruñerako noranzkoan. Sarbide horrek Urritzola, Errotz, Izurdiaga eta Irurtzundarrei emanen die zerbitzua, gaur egun halakorik hurbil ez baitute.



Egiarretako Itsasperri ermitaren ondoan dagoen jolas parke berria.

## Haurrendako jolas parke berria Itsasperrin

Zegoena ordezkatu eta hegoalderago kokatu du berria udalak. Egiarretan ez dago haurrendako jolas parkerik eta haurrek Itsasperrikoa erabiltzen dute jolasteko. Ermita ondoko aparkalekuen egitasmoa berraztertzen ari da Arakilgo Udala

### EGIARRETA

Duela urtebete inguru Itsasperrin mustu berri den *La Ermita* filmaren zati bat filmatu zuten. Lan hori egiteko Arakilgo Udalak Ermitaren mendebaldean zegoen jolas parkea kendu zuen. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "aurretik zegoenak ez zuten gaur egungo legedia betetzen, distantziak esaterako. Urte pila zituen eta egurrezko egituren beheko partea ustelduta zegoen. Horiengatik eta beste hainbat konturengatik, argi ikusten zen parkea berritu beharra zegoela". Udalak hura berritzea erabakitzearekin batera, kokapena ere aldatzea erabaki zuen, eta hegoalderago jarri du, Itsasperri ermita hartzen duen partzelaren hego mendebaldean dago orain. "Tokiz aldatu dugu ermitari protagonismoa emateko", azaldu du Olaberria.

Jolas parkea jartzeko lurra berdindu beharra zegoen, eta lan horiek udaleko lan taldeak egin ditu udan. Hondatuta zeu-

delako trenbidetik kendutako porlanezko trabesak baliatu dituzte ertzetan jolas parkeko lurrrari eta haren zoruko hareari eusteko. Lan horiek eginda, Maderplay enpresa arduratu zen jolas parkea jartzeaz. Horrekin batera, udalak belarra erein du hegoaldean, "nahikoa eskas" zegoelako. Udalak, bestalde, komuna txukundu zuen. Lanek 14.518 euroko aurrekontua izan dute.

Parkea jartzeko lanak despedituta daude, baina alkateak azaldu duenez, aurreikusitako lan guztiak ez daude bukatuta, eguraldi ona egin arte itxaron beharko dute. Izan ere, "dagoen desnibela baliatuta, aulki luze bat jarriko dugu. Hala, han eserita, haurrak nola jolasten diren

**AURREIKUSITAKO LAN GUZTIAK EZ DAUDE BUKATUTA, EGURALDI ONA EGIN ARTE ITXARON BEHARKO DA**

eroso ikusteko aukera izanen da". Komunaren ondoko mahaia toki egokiagoan jartzea aztertzen ari da udala. Horretaz aparte, haren moduko beste mahai eta aulki batzuk jarriko dira, egurrezkoak. Aldi berean, partzelaren hegoaldeko muga zuhaitzak landatuko dituzte, "ziur aski, lizarrak. Bertako barietateren bat ere pentsatu dugu jartzea", aurreratu du Olaberria.

### Plan aldaketa

Joan zen urtean, Arakilgo Udalak proiektua landu zuen Itsasperriko ermita ingurua txukundu eta ordenatzeko asmoz. Haren baitan aurreikusia zegoen, besteak beste, ibilgailuendako 30 plazako bi aparkaleku egitea. Lanek 150.000 euroko aurrekontua lukete. Baina proiektua geldirik dago. "Gobernuko errepide arduradunek ez dute begi onez ikusi proiektua. Haien proposamena ez da onargarria, eta proiektu osoa berraztertzen ari gara", esan du alkateak.



Mikel Garziandia Goñi hizketan Itsaspeñin izandako ekitaldi batean. ARTXIBOA

# Garziandia apezpiku

Mikel Garziandia Goñik Palentziako gotzain kargua ilbeltzaren 20an hartuko du. Eguna iritsi bitartean ikasleez eta pastoraltza lanaz despeditzen hasiko da Garziandia, hainbat herritan apaiz ari baita

## ETXARRI ARANATZ

Adin muga zela eta, Manuel Herrero Fernandez Palentziako elizbarrutiaren gobernu pastoralari uko egitea onartu zuen Vatikanoko astearte eguerdian. Horrekin batera, Palentziako apezpiku berria izendatu zuen: Mikel Garziandia Goñi etxarriarra. Palentziako elizari zuzendutako mezuan, Garziandia jakinarazi du Francisco aita santuaren asmoen berri Nuntzioak lastailaren 10ean eman ziola, "ama hil zela bi aste betetzen ziren egunean". Garziandia Zamartzeko espiritualtasun etxean bizi da, Donejakue bidearen ertzean. Elizako ardura berriak hain ongi ezagutzen dituen bide horretan mendebaldeko eramanen du.

Garziandia azaldu duenez, "gotzain ordenatu bitarteko hiru hilabeteak "intentsoak izanen

dira. Gauzak ixten joan beharko dut. Esku artean nituen gaiak zeinek hartuko dituen... talde lanean egiten ari garenak finkatuta utzi beharko ditugu, beste batzuek haiekin segitu dezaten. Gaineratu duenez, "martxan dagoen eta hala jarraitu behar duen tren batetik atera behar dut, ondoren dinamika propioa duen elizbarruti batean sartzeko. Palentziakoak potentzialitate handiak ditu, asko eta ongi ari dira lanean. Haiengandik ikasi beharko dut".

Bikario gisa Nafarroako gotzain Francisco Perezekin eskuz esku

**"BIKARIO IZATEAK GOTZAIN BATEN BIZITZA ZER DEN GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA EMAN DIT"**

aritu da Garziandia, eta besteak beste Joan Carlos Elizalde bikarioarekin ere harremana izan du etxarriarrak. Azaldu duenez, haiengandik ikasi du pitteka apezpiku ardura zer den. "Bikario izateak gotzain baten bizitza zer den gertutik ezagutzeko aukera eman dit. Uste dut horrek ere pixkanaka hasten lagunduko didala. Hasieran asko entzun beharko dut, ondoren bereiztu, eta ekin eta erabaki behar denean, izpirituari argia eskatu, eta egin".

Etxarriarrak jakinarazi duenez, dagoeneko Herreroekin hizketatu da eta jaso du Palentziako elizbarrutiaren berri. Bat egin du han martxan dauden ekimenekin, batez ere hasi berri den hiru urteko plangintzarekin. "Gure Pastoral Arretarako Unitateen antzeko musika du. Hemen pasioz lantzen ari garen elemen-

tuak orain geografia eta kultura testuinguru pixka bat desberdinean bizi beharko ditut", azaldu du Garziandia. "Nire ametsa da Jaunak agindu didan zerbitzuan talde lanak eta komunitate eta anaitasun esperientziak birdimentsionatuta jarraitzea ilbeltzean", adierazi du Garziandia. Aldi berean, palentziarrei eskatu die "hasieratik bertatik euren errealitatea sakon ezagutzen laguntzeko". Esan duenez, "San Migel goiaingeruari fede ibilbidean laguntzea eskatzen diot. Nire fede ibilbidea aldatu egiten da. Duela 30 urte diakono eta presbitero gisa hasi nuen ibilbidea, orain gotzain gisa bidea egitea dagokit".

## Soslaia

Julia eta Venancioren semea 1964ko martxoaren 21ean jaio zen Etxarri Aranatzen. Lau anaietan zaharrena da; haietako bat ere, Alfonso, apaiza da. Hura Iruritan bizi da eta Baztango hainbat parrokiaren ardura du. Apezpiku izendatu berriak fedea etxean eta parrokiari jaso zuen. Gaztetan parrokiako gazte taldeko kidea izan zen eta katekesia eman zien herriko nerabeei. Nafarroako Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen 1987an, eta lau urtez Kantabriako ikastetxe kontzertatu batean irakasle izan zen. Han ondu zuen bere apaiz bokazioa eta 1991n seminarioan sartu zen. 1995eko garagarrilaren 25ean apaiztu zen, eta ondoren Aresoko eta Leitzako apaiza izan zen. Fernando Sebastian apezpikuak Erromara bidali zuen eta Pontifize Gregoriar Unibertsitatean Funtsezko Teologian lizentziatu zen 1998an. Teologian Doktorea 2003an, ikasketa horiek Erromako Gregoriar Unibertsitatean egin zituen.

Handik bueltan Iruñeko San Migel Goiaingeru Ikasketa Teologikoen Goi Mailako Ikastegian irakasle lana hasi zuen 1999an. Xabierko San Frantzisko Erljio Zientzien Goi Institutuan ere irakasle da 1999tik; azken horretako zuzendari izendatu zuten 2022an. 2010-2011 ikasturtean

**"HEMEN LANTZEN ARI GARENAK ORAIN CASTILLAKO TESTUINGURUAN BIZI BEHARKO DITUT"**

Elizbarrutiko Teologia eta Pastoral Eskolan irakasle hasi zen.

Garziandia seminarioko hezitzailea eta bokazio pastoraltzarako taldeko kidea izan zen. 2005az geroztik, elizbarrutiko Zamartzeko Santa Maria Espiritualtasun Etxeko zuzendaria da, eta bertako komunitatea hiru apaizek eta arreba batek osatzen dute. Aralarko San Migel santutegiko kapilau ministro 2009an izendatu zuten. Mendiadeko (eremu euskaldunena) Gotzain Bikarioa ere bada 2010etik. Sarasatetik Ziordira arteko 34 parrokiek osatzen dute Sakana Pastoral Arretarako Unitatea, eta Garziandia hainbat apaizarekin batera zenbait parrokiaren ardura du. Unitatean pastoraltza konbertsio programa garatzen ari dira apaizak, kontsakratuak eta laikoak. Haren bidez, komunitateetako kide guztien erantzunkidetasuna zehaztuko dute. Horretan aritu den "urte hauetan pozik nago", adierazi du etxarriarrak.

Gainera, Europako hainbat herrialdeetako kongresuetan parte hartu izan du eta hainbat argitalpenaren egilea da Garziandia. Baita hainbat hedabidetako kolaboratzaile ere bada, esate baterako, ETBko *Hegibidean* saiokoa, edota *La Verdad* edo *Hemen. Erljio gogoetarako aldizkaria* agerkarietakoak. Garziandia Europako San Migel santutegiaren sarearen koordinazioaz arduratzen da. Europako proiektu hori 2025eko Jubileoarekin lotu nahi dute sareko kideek.

## Otoitzerako deia

Etxarriarra Palentziako apezpiku izendatu dutela jakin ondoren, Iruñeko eta Tuterako artzapezpiku Francisco Perezek Elizbarrutiko apaiz eta fededun guztiei bi gauza eskatu die, batetik, Garziandia oroitu dezatela eta, bestetik, etxarriarraren alde otoitz egiteko. Otoitz horiek, bereziki, azaroaren 5 eta 12an ospatuko diren Eukaristietan egitea eskatu du Francisco Perez artzapezpikuak, "gure elizbarrutiko kide bat denez, otoitz horiek anai-arreben arteko maitasunezko adierazpen izan daitezela" eskatu du. Garziandia "bere bizitzako etapa berri honetan Jesukristo, Ama Birjina eta San Migel lagun izatea", opa dio Iruñeko eta Tuterako artzapezpikuak.





Sarituen, antolatzaileen eta babesleen talde argazkia Ziordiko liburutegian.

# Sakana bizigarriagoa irudikatzen duten ipuinak

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak IV. Zurrumurrueen kontrako ipuin lehiaketako sariak banatu zituen astelehenean. Saritutako ipuinak jasotzen dituen liburuxka ikastetxeetan eta liburutegietan dago, irakurri nahi dutenen eskura

## ZIORDIA

Anitzarteaneko Begoña Zestau Baraibar gizarte hezitzaileak ipuin lehiaketako sari banaketaren aurkezpenean azaldu zenez, Zurrumurrueen Kontrako Nafarroako Sareko Zaskako ki-deak aritu dira epaile. Eta aurkeztutako "ipuin maila altua" nabarmendu dute. "Helburuak kontutan hartuta, lehiaketara aurkeztutako ipuinetan zein maila altua dagoen errepikatzen dute urtero".

Aurten 18 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Epez kanpo aurkeztu edo lehiaketako baldintzak ez betetzeagatik, hainbat idazlan kanpoan gelditu direla jakinarazi du gizarte hezitzaileak. Guztiek ere idatzien bidez sakandarrak zurrumurrueen eta estereotipoen inguruan hausnarketa egitera gonbidatu behar zituzten. Baita migratzaileekiko ditugun aurreiritziak desagitera ere. Aldi berean, idazleek elkarbizitza sustatzen duten beste eszena toki

batzuk irudikatu behar zituzten ipuinen bidez, "dagoeneko zurrumurrueetatik libre dagoen ibarra, giza eskubideak defendatu eta bermatzen dituen, elkarbizitza positiborako pausoak ematen dituen...", zehaztu du Zestauk.

Guztira hamaika sari banatu ziren, aurreko urteetan saritutako batzuek aurten ere saria jaso dute. Ipuin horiekin liburuxka argitaratu du Anitzarteanek. Saritu bakoitzak ale bana

jaso du, eta gainontzekook ipuin horiek irakurri nahi izanez gero, "ipuinetakoa eszena toki horiek ikastetxe eta liburutegietan izanen ditugu eskura". Bigarren urtez jarraian argitaratu ditu zerbitzuak ipuinak liburuxka batean. Zestauk gonbidapen bikoitza egin du, ipuinak irakurtzeko eta heldu den urteko edizioan parte hartzeko.

Zestaurekin batera, Rosa Mendoza Arregi Ziordiko zi-

negotziak eta Anitzarteaneko batzordeko eta Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen elkarteko Estibaliz Asensio Elorzak eta Amaia Mendosa Arregik banatu zituzten sariak. Irabazleek elkarteko establezimenduetan eskuratuko dituzte sariak. Horretarako, azaroa dute. Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketarako Departamentuaren laguntza izan du lehiaketak.

## Palestina, hurbiltzeko

Palestinarek bizi duten egoera latza salatzen eta haiendako estatu bat aldarrikatzeko kontzentrazioak egitean ari dira Sakanan. Eta guztietan hainbat jatorritako sakandarrek bat egin dute, herritarren arteko harremanak sortuz. Asteartean, 19:00etan, gauza bera egingen da, udaletxeen parean bilkurak egiteko deialdia baitago.



UTZITAKOA

## Sarituak

### Gaztelera

#### 16 urtetik gorakoak

Saritua	Ipuina	Saria
1. Izaskun Salinas Burillo	<i>Irati</i>	200 euro
2. Abderrahim Khifi	<i>El Viaje de la interculturalidad</i>	150 euro
3. Nora Bourzik Farih	<i>Nora</i>	100 euro

#### 16 urtetik beherakoak

Saritua	Ipuina	Saria
1. Oussama Missaoui Oulalit	<i>Soren</i>	100 euro
2. Ayman Missaoui Oulalit	<i>Bruno</i>	75 euro
3. Julen Larraza Salinas	<i>La Gran Tormenta</i>	50 euro

### Euskaraz

#### 16 urtetik gorakoak

Saritua	Ipuina	Saria
1. Martin Larraza Kintana	<i>Yaya</i>	200 euro
2. Farah Khelifi Roubi	<i>Marmoka</i>	150 euro
3. Aiora Larraza Salinas	<i>Irria</i>	100 euro

#### 16 urtetik beherakoak

Saritua	Ipuina	Saria
1. Tahani Brahim	<i>Geldi</i>	100 euro
2. Tania Otero Madinaveitia	<i>Perfektuaren kostua</i>	75 euro



Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

## KOLABORAZIOA

## Sakanako lexia konposatuak (II)

## JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Lexia konposatuari buruzko aurreko artikuluari segida emanez, hona jarraian hitz soila bera baino zerbait gehiago diren lexiko arloko burutzeen sorta Sakanan.

**Aho uhaletan egon** (Etxarri Aranatz). Guztion ahotan egon edo ibili zerbait.

Zurrumurruekin erabiltzen da horrela. Ahoz aho ibili zerbait. *Kuidedo geyo ez badek izeten, erri guzien agobeletan yonen yeiz!* (Kontu gehiago ez baduk izaten, herri guztian aho uhaletan egonen haiz!). "*Estar en boca de todos, en candelero*".

**Aupats egin/bota** (Sakana). Korrok egin, korrokada egin. *Txanpana yan ta epatsa epatsaan geñen zaallek atsalde guzie!* (Txanpaina edan eta aupatsa aupatsaren gainean zabilek arratsalde osoan!). "*Eructar*".

**Aire / Ospa hemendik!**, **Alde paretik!** (Burunda, Aranatz). Alde hemendik! Utikan! *Aire / Ospa emendik, ez padok zerbait gertatzia nai!* (Urdiain, Altsasu, Arazoik ez pauk nei, alde pareti! (Aranatz). "*¡Fuera de aquí!*".

**Auzomotojorik** (egon / jarri) (Etxarri Aranatz, Lizarraga). Gogoko egoera

baten hurbiltasunak (festa, elurra...) eragina izaten duenean norbaitengan erabiltzen da. Pozez edo irrikaz erabat harroturik egon. Bere osagaiak *auzo + moto + jorik* dira eta garai batean, auzoan, urteko kontuak egindakoan, ondorengo afariak eta festak sortutako irrika (*motoa jorik* = ilea motoan apaindurik) adierazten du. *Gazte guziek auzomotojorik ziek, aurrek elurre ein ber denien bezela, festak eldu diela ta!* (Gazte guztiak auzomotojorik zaudek, haurrak elurra egin behar duenean bezala, festak heldu direla eta!). "*Estar alborotado, henchido de contento, en espera de algo agradable*".

**Alde ederra / Aldea egon** (orokorra). Bi egoera, gauza edo pertsonen arteko ezberdintasun handia. Izenondorik gabe bereziki Sakanan. *Aldie zioik bateti bestia!* (Aldea zagok batetik bestera!). "*¡Menuda diferencia...!*"

**Alde guztietara (ere)** (Sakana). Nolanahi ere, dena dela, dena den. *Alde guzetaa dee gelditu in bi oot! -de todas formas me quedaré-* (Alde guztietara ere, gelditu egin



behar dut!) (Lizarraga). "*De todas formas, no obstante*".

**Antza eman** (orokorra). Igarri, asmatu. Arruazun (*igerri*) ez beste Sakanako herri gehienetan erabiltzen da barra-barra. *Beleixe eman zionet antza ez zala bueltatuko!* (Berehalaxe eman zionat antza ez zela itzuliko!). "*Adivinar, controlar*".

(*adond/izond*) **antza ibili / jarri**, (*egoera*) **antza egon / ikusi**, (*kolore*) **antza izan** (Sakana, orokorra). Lehenak, dela aditzondoa edo izenondoa, erabat izan gabe, antzean, adierazten du eta mugatu gabe erabiltzen da Sakanan. *Urduri antza ibil da egun guzien!* (Urduri antza ibili da egun guztian!). *Triste antza daalle azkenontan!* (Triste antza dabil azken honetan!). *Gorri antza jartzen da norbeitte beiretus kios!* (Gorri antza jartzen da norbaitek begiratu gero!). "*a medias, ligeramente, tirando a..., rojizo, azulado...*"

**Askoa izan** (Aranatz, Arakil). Egoera desatsegina dela eta, dagoeneko asperturik gaudela adierazteko erabiltzen da, aditza jokaturik. *Beixee itxiko dubiela egunkariye? Askuaa!* (Berriz ere itxiko dutela egunkaria? Askoa da!). *Guai dee miñe artu den?* *Askueen!* (Orain ere mina hartu dun? Askoa dun!). "*Ya te/os/le/les vale!, ¡Vaya hombre!*"

**Asko jota** (orokorra). Gehienara (ere), goitik jota, gehien-gehienik. *Asko jota, berrogei urte izanen ttu!* (... ditu!), *Illundu artio, asko jota, geldittuko neiz.* "*Como mucho, a lo más*".

**Azkeneko aztalkak egin / eman** (Sakana). Hil. Aztalkak,

berez, hanketako aztalak era azkarrean mugitzea adierazten du. *Aldemeneko aittunek bart eman ttu atzeneko aztalkak!* (Aldameneko aitonak bart eman ditu azkeneko aztalkak!). "*Estirar la pata, dar los últimos coletazos/pataleos*".

**Ote gero!** (Etxarri Aranatz). Auskalo, nork jakin. Ikusteko dago. *Partidue nok iraziko deen? Ute kio!* (Partidoa nork irabaziko duen? Ote gero!), *Ute kio, ze nei izenen deen!* (Ote gero, zer nahi izanen duen!). "*¡Vete a saber!*"

**-ago egoten jakin** (Burunda, Aranatz). Ohi izan, zerbait normalean beste egoera batean egoten dela adierazten du. *Peskadillak merkio're badaki yoten!* (Peskadillak merkeago ere badaki egoten!) (Bakaiku). "*Soler estar más (adjetivo)*".

**Ahotza erosi eta astoa saldu** (Sakana). Negozio txarra egin edo gaizki atera. Axola gutxirekin egindako ekintza ere adierazten du. Lizarragakoak dira hurrengoak eta izenak zein aditzak aldaturik ere erabiltzen dira: *Agotza iooi ta astue saldu in, agotza saldu ta astue iooi in -hacer un mal negocio-* (Ahotza erosi eta astoa saldu egin, ahotza saldu eta astoa erosi).

**Ahuntzak jokatu** (Sakana). Kartetan bereziki, partida kopuru berbera irabazita izanik, irabazlea zein(tzuk) d(ir)en erabakiko duena partidari esaten zaio horrela. *Zuek musien, guk tutien irabazita, zetaa jokatu ttugu auntzek?* (Zuek musean, guk tutean irabazita, zertara jokatu ditugu ahuntzak?). "*Desempatar, jugar las cabras*".

**Aida noranahi!** (Aranatz, Arakil). Berdin da nora, baina

goazen aurrera behintzat. *Aurrera! Nua fanen gaan berdin da, aida nuane!* (Nora joanen garen berdin da, aida noranahi!). "*Sea donde sea*".

**Ai, hau pena nik!; Ai, ama nik!** (Aranatz, Arakil). Kontakizuna edo gertakizuna sinestezina dela adierazteko erabiltzen da. *Harridura adierazten du. Aiaupenani, ez tun egiya izanen! Aiamani, ez niñan sekule usteko olakoik gerta zettekenik!* (Ai, ama nik, ez ninan inoiz usteko horrelakorik gerta zitekeenik!). "*¡Vaya!, ¡No es posible!*".

**Alderdi eduki, Alderdi (ederra / txarra) eduki** (Aranatz, Arakil). Lehenak, eskura eduki adierazten du. Besteak esanahi ezkorra edo baikorra hartzen du, kontrako esanahia (modu ironikoan) adierazirik. *Nee alderdi dakat fatie o ez!* (Nire alderdi daukat joatea edo ez!), *Alderdi ederra zikobau, biyer dee elurre!* (Alderdi ederra zaukaguk, bihar ere elurra!). *Ez takazu alderdi txarra, guai dee loteye tokatuakizu!* (Ez daukazu alderdi txarra, orain ere loteria tokatu zaizu!). "*A mano, tenerlo crudo, ¡vaya chollo!*".

**Ttilin-bulun** (Etxarri Aranatz). Zabuka, balantzaka, erori ez erori. *Ttilin-bulun beye allaatu, bintzet, allatu den etxia!* (Balantzaka, baina ailegatu, behintzat, ailegatu dun etxera!). "*Tambaleándose*".

**Malamente ibili/esan/ari izan...** (Sakana) Alferrik, saiatuz gero ere ez dela ezer ere lortuko adierazten du, gaztelaniatik hartutako maileguak. *Malamente zailtzie, ez tau ezee esanen!* (Alferrik zabiltzate, ez du ezer ere esanen!).

## DUELA 25 URTE...



## Irurtzungo pilota eskolak, 10 urte

Hamarkada bat bete zuen Irurtzungo pilota eskolak. Pilotan trebatzen 7 eta 20 urte arteko 45 haur eta gazte zeuden. Guztiak Fermin Escudero, Pedro Mata, Segundo Vilches, Domingo Nagore, Alfredo Sarasola eta Luis Esparteroren ardurapean aritzen ziren. Lorpenen artean zegoen aurreko urtean mailaz igotzea Espainiako klubean txapelketan eta 1998an 2. mailan aritzea. Klubean trebatutako Ismael Chafeek Europa mailako txapela eskuratu zuen, eta, ordurako, Jorge Nagore profesionaletan zen.





Mintzakide taldeetan aritutako hainbat sakandar. ARTXIBOA

## Euskara praktikatu nahi dutenendako plana: Mintzakide

Mintzakiden bederatzita talde hasi dira, beste bi hastear dira eta, nahi izanez gero, gehiago sor daitezke

### SAKANA

Talde txiki bat elkartu tabernan, elkartean, paseoa ematen, zinemaren ondoren, josteko hitzordua jarrita... Elkartu eta dena delakoari buruz hizketan hasi. Izan daiteke aktualitateari loturiko gairen bati buruz, izan daiteke oraintsu ikusitako film bat, irakurritako liburu bat... Eta zergatik ez, baita herrian bolo-bolo dabilen azken txutxu-mutxua ere. Hizketan ordu bat, euskara praktikatzeko, konfiantzazko giroan eta bidelagun bat aldamenean dagoela. Horrela, hanka sartzeei beldurra galtzen diete parte hartzaileek, baita euskara eta jarria hobetu ere.

Hori da mintzakide. Etxean, kuadrillan, lantokian, ikastetxean

edo bere egunerokoan euskaraz hitz egiteko aukerarik ez duten baina hizkuntza praktikatu nahi dutenei zuzendutako programa da. Edo euskaraz hitz egiteko ohitura galdu eta berreskuratu nahi dutenendako.

Euskal Herrian 6.000 pertsona baino gehiago aritzen dira. Sakanan bederatzita talde dagoeneko hasi dira astero elkartzen, beste bik data zehazteko dute. Baina bakarren batek bere herrian edo beste ordutegi batean taldea sartu nahi badu 600 482 024 telefono zenbakira Whatsapp mezua bidali edo [sakana\\_mintza@aeik.eus](mailto:sakana_mintza@aeik.eus) e-posta helbidera idatzi dezake. Mintzakiden parte hartzea musuruk da. Haren ardura Euskara Zerbitzuak eta AEK-k dute.

# Anitzarteanendako gobernuaren aitortza

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Nafarroa Koloretan sariketako toki politikako aitortza jasoko du abenduaren 19an. Kulturen arteko elkarbizitzan egindako lana aitortuko zaio

### SAKANA

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuarena da *Nafarroa Koloretan* saria. Haren bidez, kulturen arteko elkarbizitza eta arrazakeria nahiz xenofobiaren kontrako borroka sustatzen dituzten pertsona eta entitateak saritu nahi ditu. Aldi berean, elkarbizitza eta kultur aniztasuna Nafarroako garapenaren motor gisa azpimarratzen dituzten ekimenak ere saritu nahi ditu.

Nafarroan bizi eta atzerriko jatorria duen pertsona migratzaile bati ematen zaio sari nagusia, urtean zehar biztanleria migratzaileak Foru Komunitatean duen balioa azpimarratu eta elkarbizitza sustatzeagatik. Aurten gobernuak banatzen duen saria Monica Yuk jasoko du. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Iruñeko Konfuzio Gelako arduraduna eta interprete profesionala da Yu, eta komunitate txinatarraren eta



Anitzarteanek antolatutako ipuin lehiaketako sari banaketa hasi aurreko unea.

nafarraren arteko "zubi" lana egiteagatik sarituko dute.

Sariketa berean toki erakundeei dagokien aitortza Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuaren dako izanen da. "Kulturen arteko elkarbizitza bulkatzeagatik" ja-

soko du saria. Sariketako epai-mahaiak kontuan izan du ere "2009tik horretan etenik gabe denbora luzean aritu den toki erakundea da Sakanako Mankomunitatea. Beste eskualdeendako eredu da".

## Momentuz dauden mintzakide taldeak

Herria	Data	Tokia
Iruztun	Astelehenetan, 18:30ean	Iratxo elkartean
	Ostegunetan, 09:00etan	Pikuxar elkartean
	Ostiraletan, 19:00etan	Pikuxar elkartean
Lakuntza	Asteazkenetan, 18:15ean	Herrian zehar
Arbizu	Astearteetan, 16:30ean	Kiroldegiko tabernan
Etxarri Aranatz	Eguna eta ordua zehazteke	
Altsasu	Astelehenetan, 10:00etan	Liburutegian
	Astelehenetan, 16:00etan	Gautxori tabernan
	Ostegunetan, 20:00etan	Lezea tabernan (Altsasuko euskara)
	Ostiraletan, 09:00etan	Kaixo tabernan
Ziordia	Eguna eta ordua zehazteke	Liburutegian



MUSIKAZ  
BLAI

**Albina  
STARDUST**

Drag artista eta aktibista / IRUÑEA

Ezet  
asmatu  
zeintzuk  
diren  
bere kantu  
kuttunak  
**Piztu  
irratia!**

Azaroak 3, ostirala,  
10:30etik aurrera

**Beleixe irrastian**





# FESTAK



**LAKUNTZA** 'Herritik tira' festen barruan, sokatira handia egin zuten herritarren artean.



**IRURTZUN** Misterioz eta mitologiaren beteriko ibilaldi beltza antolatu zuen Pikuxar elkis-Iskidi, Tramankulu, Ion Barbarin, Yurena Perez, Izaskun Mujika eta Lorena Arangoak laguz.



**LAKUNTZA** La Excavadora taldeak eman zion bukaera larunbateko egitarauari.



**BAKAIKU** Bertako mozorroez jantzita elkartu ziren Bakaikuko dendaren inguruan bakaikuarrak.



UTZITAKOIA

**ITURMENDI** Iturrocken barruan bazkaria egin zuten gazteek.



UTZITAKOIA





UTZITAKOIA



UTZITAKOIA

**LAKUNTZA** Gau beltzaren inguruko aurpegia margotzeko tailerra egin zuten plazan, armiarmaak, sareak, sorginak... marraztu zituzten aurpegian.

**ARBIZU** Ipuin kontalariaren ondoren, kalejira egin zuten herritik zehar bertako herri mozorroez jantzita.



UTZITAKOIA



UTZITAKOIA

**ALTSASU** Iñigo Aritza ikastolak antolatutako kalejiran trapu zaharrez jantzita eta ikastolan bertan hazitako kalabazez lagunduta atera ziren.

**ALTSASU** Kukurreka elkartearen ipuin kontalaria eta eskularen tailerra egin zituzten larunbatean.



UTZITAKOIA

**ALTSASU** Altsasu kantuz taldekoek kaleak alaitu zituzten.

**ZURE PUBLIZITATEA  
HEMEN**

Informazio gehiago:  
948 564 275 | 661 523 245  
publi@guaixe.eus  
guaixe.eus/publizitatea/

**guaixe**  
fundazioa



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 3

## UHARTE ARAKIL Batzarra.

Itaiaren azaroaren 30erako mobilizazioaren inguruko asanblada irekia.

18:00etan, plazan.

## ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez kutxa.

18:00etatik 21:00etara,

Intxostiapunta gazte gunean.

## ALTSASU Aurkezpena.

Altsasu 1936 liburuaren losu Imaz Prim eta Amaia Ijurko Artola egileen aurkezpena.

19:00etan, lortia kultur gunean.

## ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Jon Plazaolaren *Tu-tum, Plaz!* bakarrizketa saioaren emanaldia.

22:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 4

## ETXARRI ARANATZ Azoka eta tailerra.

Arropatruk eta arropak konpontzeko eta eraldatzeko tailerrak.

10:00etatik aurrera, kultur etxean.

## ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Eskola Jokoetako partidak:

Bakeriza-Sasiain / Gofii-Beraza

Mendiburu-Marroyo / Moreno-

Aldasoro

Garmendia-Campos / Glaria-Guerra

Larraza-Lazkoz / Beltza-Gaintzarain

Campos-Amado / Lacunza-Arraras

10:00etan, Euskalerriri

pilotalekuan.

## OLATZAGUTIA Batzarra.

Itaiaren azaroaren 30erako mobilizazioaren inguruko batzar informatiboa.

12:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Bertso saioa.

2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalurrekoa: Ekhiñe Zapiain Arlegi, Eneko Fernandez Maritxalar, Patxi Castillo Graciarena, Saats Karasatorre Martinez, Saioa Alkaiza Guallar eta Sarai Robles Vitas bertsolariak. Gai jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'.

17:30ean, lortia kultur gunean.

## UHARTE ARAKIL Batzarra.

Itaiaren azaroaren 30erako mobilizazioaren inguruko batzar informatiboa.

18:00etan, plazan.

## ALTSASU Gazte agenda.

PlayStation arratsaldea.

18:00etatik 22:00etara,

Intxostiapunta gazte gunean.

## IRURTZUN Kontzertua.

La Pura Fuente abesbatzaren kontzertua. XXVIII. Nafarroako Nazioarteko Abesbatzen Zikloaren barruko emanaldia.

19:45ean, elizan.

## ALTSASU Kontzertua.

Thrash metal gaua: Legalize Murder eta Electriceel taldeen kontzertuak.

23:00etan, gaztetxean.

## IGANDEA 5

## ARBIZU Padel topaketa.

Padel Ate Irekiak emakumeei zuzendutako padel topaketa, Sakanako Mankomunitateak antolatutako ekimena.

10:30etatik aurrera, Sakana Padel egoitzan.

## BAKAIKU Irteera eta tailerra.

Gaztaina mozte eguna

10:30 Irteera autoz, plazatik.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Chinas gaurkotasunezko filmaren emanaldia**

Igandea 5: 19:30

Astelehena 6: 19:30

**Sonido de la libertad gaurkotasunezko filmaren emanaldia.**

Osteguna 9: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**El legado zineforum filmaren emanaldia**

Igandea 5: 19:00

**O corno zineforum filmaren emanaldia**

Osteguna 9: 19:00

10:45 Mandubitatik auntzetxera ibilaldi gidatua: gaztaina bilketa, historia, gaztainondoei buruzko informazioa...

12:30 Gaztainen landaketa loreontzietan, plazan.

13:00 Udazkeneko pintxoak Koxko tabernan.

## ALTSASU Ikuskizuna.

*Izadi* familiarteko dantza eta txotxongilo ikuskizunaren emanaldia.

17:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 7

## LAKUNTZA Joskintza tailerrak.

Josteko makina egokitu eta erabiltzen ikasi. Bakoitzak bere josteko makina eraman dezake. Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

17:00etatik 19:30era, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

## UHARTE ARAKIL Pilota.

Nafarroako XXXVII. Kirol Jokoak gazteen lau eta erdi Guillermo Mazo Memoriala.

18:00etan, frontoian.



**ALTSASU XII. Arte Azoka erakusketa, Artebide elkarteak antolatuta.** Urriaren 20tik azaroaren 20ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi baino ordu bat lehenago, igandetan 18:30etik 19:30era. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



**IRURTZUN. Francisco Navarro artistaren margo erakusketa.** Azaroan. Pikuxar tabernan.

## ALTSASU Batzarra.

Azaroaren 30eko greba feminista prestatzeko Mugimendu Feministak deitutako batzarra.

19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

## OSTIRALA 10

## ALTSASU Hitzaldia.

Alternatiba badago. Tren sozialaren alde, AHTrik ez! EH Bilduren hitzaldia:


Ainize Ibargutzi Altsasuko zinegotzia eta bozeramailea, Mikel Otero EAEko legebiltzarkidea eta Adolfo Araiz Nafarroako legebiltzarkidea.

18:30ean, lortia kultur gunean.

## ZIORDIA Aurkezpena.


¡Ay ene! Zjordia, Villafranca y Txantrea en el corazón liburuaren aurkezpena, Mila Martínez Jaurrieta egilearekin.

19:00etan, liburutegian.



**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## ERRENTAN EMAN

**Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2023ko San Klemente festetan alokatu nahi da:** azaroaren 17,18 eta 19an. Gutxienez 1.000 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor azaroak 5, igandea, eguerdiko 12:00etan elkartean ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago, enkantea eginen da.

**Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, kumuna eta *office*-a ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

## LAN ESKAINTZA

**Aralarko Udalak dinamizatzaile kultural lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zabaldu du:** Hautagaien zerrenda osatu nahi dute, lanaldi erdian, B mailako soldatarekin. Derrigorrezkoa C1 maila, gidabaimena eta autoa izatea. Informazio gehiago [www.arakil.eus](http://www.arakil.eus) web orrian.

## IRAKASKUNTZA

## KLASEAK EMAN

**LH ikasleendako klase partikularrak:** Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

## IKASTAROAK

**Mank-en Hondakin zerbitzuak antolatutako joskitza tailerrak:** Jos-teko makina egokitu edota erabiltzen ikasi azaroaren 7an 17:00etatik 19:30era, estanpazioa familiar (hau bikoteka egingo da) azaroaren 14an 16:30tik 18:30era. Tailer guztiak Mank-en Lakuntzako egoitzan egingo dira. Tailerrak Erabili enpresarekin elkarlanean prestatu dira. Izena emateko [info.hondakinak@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakinak@sakana-mank.eus) helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora Whatsapp mezua bidali lehenbailehen plazak 12 lagunetara mugatuak direlako. Animatu eta parte hartu.

## OHARRAK

**Uharte Arakilgo Udalak Auzaletako hilerria zabaldu duela jakinarazi du:** Azaroaren 5era arte zabalik egonen da, hilotzak apaindu edo bisitatu egin ahal izateko.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udalako Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dudenari %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Patata operazioa:** Azaroaren 5ean, igandearekin, Iruñeako Alegria peñak patata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdiainetik hasi eta Satrustegi bitartean, herri herri, jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

**Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera:** Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## OROIGARRIA



## Valentina Rubio Etxeberria

(Anselmo Barrientosen alarguna)

I. urteurrena

(Irunen hil zen, 2022ko azaroaren 4ean, 103 urte zituela)

Zure familiak maitasun handiz gogoratzen zaitu eta gogoratuko zaitu

Altsasu

## OROIGARRIA



XV. urteurrena



III. urteurrena

## Ciri eta Txentxo Herrero Palomo

Betiko gure bihotzetan



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

## JAIOTZAK

- **Aratz Allanm Catarain**, urriaren 27an Lakuntzan
- **Luken Goñi Galarza**, urriaren 25ean Etxeberrin
- **Melissa Sanduta**, urriaren 28an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Jose Luis Pérez Orive**, urriaren 29an, Altsasun
- **Pedro Marquez Perujo**, urriaren 31ean Altsasun
- **Mikel Sagarzazu Andueza**, urriaren 25ean Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.





# IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

## Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

<b>ALTSASU</b> Santa Cruz, 6	<b>ETXARRI-ARANATZ</b> Nagusia, 2
---------------------------------	--------------------------------------

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

**0 km**  
**SAKANAKO**  
**GIDA**

**ETXEA**  
**BERRITU**  
**NAHI DUZU?**

<https://guaixe.eus/gida/>





Graciela Prado Garcia-Jove, Poloniako IPSF Mundialetan, bere kategorian, Para Pole Sport, seinalatzen. UTZITAKOIA

# "Nork esanen zidan niri Mundialetaraino iritsiko nintzela"

**GRACIELA PRADO GARCIA-JOVE** POLE SPORT KIROLARIA

**POLE SPORT** Aurreko astean Polonian jokaturako Mundialen Para Pole Sport kategorian munduko txapelduna izan da etxarriarra

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRIARANATZ Urriaren 25etik 29ra Polonian jokaturako Pole Sport Mundialetik ezin pozikago itzuli da Graciela Prado Garcia-Jove etxarriarra. Bere kategorian, Para Pole Sport mailako anputatuen mailan, munduko txapelduna da. 2014an istripu baten ondorioz hanka galdu zuenetik, gainditze historia hutsa da Gracielarena. **Pole Sport kirol gogorra da, barran egiten dena.**

Kirol gogorra da, oso fisikoa, eta kirol osoa. Oinarrian teknika

eta elementuak daude, eta beraietan oinarrituta barra batean elementuak eta akrobaziak egitea da koxka. Barrara igo baino lehen, indarra hartzeko eta malgutasuna izateko prestakuntza fisikoa egiten dugu. Hainbat mota

**"AMAIA BELOKI ENTRENATZAILEARI ESKER IRITSI NAIZ IRITSI NAIZEN TOKIRA, HORI OSO ARGI DUT"**

daude: Pole Sport, Pole Dance... Hanka galdu nuenez, ni Para Pole Sportean aritzen naiz.

**Ubarminen errehabilitazioan zeundela izan omen zenuen Pole Sport Kirolaren berri. Istripuaren aurretik kirolen bat egiten al zenuen?**

Ez. Paseora joan eta gutxi gehiago. 2014an izan nuen istripua, eta urte dezente pasa behar izan ziren hanka protesikoa jarri ahal izateko. Ubarmineko Eunate errehabilitatzaileak Pole Sportez hitz egin zidan, berak egiten zuelako. Nire egoeran ongi egingo zidala-

koan, animatu, eta Iruñeko Backflip eskolan hasi nintzen, Amaia Beloki entrenatzailearekin. Hasieran tarteka joaten nintzen, ebakuntza asko izan nituelako. Beti zerotik hasi beharra nuen. Pole Sportean, hiru urte inguru daramatzat jarraian. Gorputza indartzeko asmotan hasi nintzen, eta begira. Nork esanen zidan niri, Munduko Txapelketaraino iritsiko nintzela.

**Pole Sporta zure kirola da.**

Gutziz. Oso gustuko dut eta nire egoerara primeran egokitzen da. Gozatzen dut. Kirol estatikoa denez, ez duzu oinez ibili behar, hasieran, hanka protesikoa ez nuenean, bereziki enborra indartzeko primerakoa izan zen. Protesia dudantetik gusturago aritzen naiz.

**Amaia Beloki entrenatzailearendako hitz gozoak dituzu beti.**

Berak niregandik tira egiten du, etengabe. Lehenengo egunetan, Pole Sportean ezingo nintzela aritu uste nuen; ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Berak esaten zidan: lasai, eman denbora, iritsiko da. Gutxika, asko entrenatuz, egun batean barran igotzen zarela konturatzen zara, hurrenean goraka igotzen zarela... Amaiari esker iritsi naiz iritsi naizen tokira, hori oso argi dut. Hasieratik apustu egin zuen nire alde; berari esker sinetsi dut gaitasuna dudala. Eskolan taldekideekin familia txikia osatzen dugu, eta elkarri laguntzen diogu.

**Zer da garrantzitsuen Pole Sport kirolan?**

Batez ere ez etsitzea, eta gutxika aurrera egitea. Lehendabiziko egunetan ez zaizu ezer ateratzen. Denborarekin lortuko duzu barran emaitzak ikusteak. Nire kasuan, txipa aldatu, nire mugak non dauden ikusi eta noraino heldu ahal naizenez zehaztu behar izan nuen. Badakit Pole Sporteko zenbait elementu edo figura ezingo ditudala egin, baina beste batzuk egiteko ez dut arazorik. **Lehen erakustaldia gogoan duzu?** Iruñeko auzo batean izan zen, 2021ean, eskolak Pole Sporta ezagutarazteko egindako erakustaldi batean. Nik ez nuen nahi, oso lotsatia bainaiz, baina Amaiak

**"MUNDIALEAN ENTRENAMENDUETAN EGINDAKO LANA ERAKUTSI NAHI NUEN; ONGI ARITU NINTZEN"**

animatu ninduen. Bihar, larunbata, Morean erakustaldia egingo dugu, 19:00etatik 20:00etara.

**Txapelketetarako nolako lanak prestatzen dituzue?**

Musikari jarraiki egiten dugun 4 minutu inguruko koreografia prestatzen dugu. Derrigorrezko ariketa batzuk sartu behar ditugu, eta gero nahi ditugun elementuak. Elementu bakoitzak puntuazio zehatza du. Zenbait ariketatan bi bira egin behar dituzu, bestean 2 segundo geldirik iraun... halakoak.

**Poloniako IPSF (International Pole Sports Federation) Mundialean parte hartzeko txartela Portugalen lortu zenuen.**

Bai. Poloniako Mundialean Para Pole Sport kategorian lauzpabost kirolarik parte hartu genuen. Gutxika jende gehiago animatuko dela uste dut. Anputatuen atalean ni nintzen bakarra, eta banekien irabaziko nuela, baina nire helburua ariketa ongi egitea zen, entrenamenduetan egindako lana eta esfortzua erakustea. Une batean, urduritasunagatik, burua hutsik geratu nintzen, baina buelta eman nion eta ongi aritu nintzen. Oihane Izco eta Cristina Martiarena taldekideek lan ikusgarria egin zuten Pole Artistics mailan, baina oraindik ez dute sailkapena argitaratu.

**Munduko txapelduna zara. Poloniako esperientzia nolako izan da?**

Bikaina. Amaia Beloki IPSFko Espainiar Estatuko taldeko presidentea denez, selekzioko taldekide guztiekin egon ginen eta Mundialeko gainontzeko erakustaldiak ikusi genituen, gustura.

**Pole Sport kirola goraka doa?**

Baietz esango nuke, eta nahiago nuke gehiago igotzea. Gurea sakrifizio handia eskatzen duen kirola da. Gu kirolariak gara, hori da federazioak erakutsi nahi duena.

**Une oso kritikoa dena eman dizun kirola izan da zuretzeko.**

Pole Sportak asko eman dit. Izan nuen istripua gainditzen lagundu dit, eta bi hankak banitu egingo ez nukeen kirola egiteko aukera eman dit, nire orduko errutina lan eta lan egitea baitzen. Gainera, etxetik ateratzen naiz, jende gazte askorekin egoten naiz, eta zoriontsu nago.

**Gertukoak ere, kontentu.**

Oso. Semearendako, senarrendako eta amarendako ere oso gogorra izan zen nire istripua. Eta ni orain horrela ikusita pozik daude.



# Kirol apustu handirako, prest

Azaroaren 11n, 18:30ean, Altsasuko frontoian Arkaitz Jauregi-Fidel Jimenezek, batetik, eta Iñaki Vazquez-Eneko Larrionek, bestetik, seina kanaerdiko erdibitu beharko dituzte, seina crossfit ariketekin tartekatuz. 2.000 euro eta ohorea daude jokoan

## Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Aizkorri Kirol Zentroko Gaizka Martinez de Albeniz kirol teknikariari piztu zitzaion crossfita eta aizkora batzen dituen apustua antolatzekeo ideia. "Zerbait egitea aspaldi nuen buruan. Aizkorrin denetariko jarduerak antolatzen ditugu, eta apustu bat antolatzea beste bat izan behar zela uste nuen. Lau partaideak Arkaitz Jauregi, Fidel Jimenez, Iñaki Vazquez eta Eneko Larrion izan behar zirela hasieratik argi nuen, lauek aizkora erabili izan dutelako edo erabiltzen dutelako". Banan-bana joan zen laurei proposamena egitea. "Gutxi behar dugu pikatzeko, eta baiezkoa eman genion" erantzun du Fidel Jimenez etxarriarrak. "Iñaki Vazquez animatzea gehiago kosta zitzaidan, baina azkenean berak ere baietz. Arkaitz Jauregi eta Eneko Larrion azkar animatu ziren. Berehala pikatzen dira". Irribarrez daude guztiak.

## Lan latza

Egin beharreko lana, sei kanaerdiko eta sei crossfit ariketa gogor tartekatzea, latza da. "Horregatik da apustu bat. Apustu batek gogorra izan behar du. Edozeinek ezin du hau egin" dio Martinez de Albenizek. Lau kirolariek elkartuta adostu zituzten egin beharreko lanak. "Bikote batek proposamen bat egiten zuen, eta besteak baiezkoa edo ezezkoa erantzuten zuen. Horrela, guztia adostu arte. Bikote batek korrika egitea proposatu zuen, eta, besteak ez zuen nahi izan. Eta ez da egongo. Argi dagoena da bi bikoteek ariketa hauek adostu badituzte, ariketak egiteko gai direlako dela" nabarmendu du kirol teknikariak.

Bikoteak eta lanak orekatzen saiatu dira, apustu irekia izate-

ko, "bestela ez du graziarik. Arkaitz Jauregi aizkora onena da, eta Fidel agian lau kirolarien artean ahulena, ez ahalmenengatik, duen gorputzarengatik baino, arinena delako. Iñakirena eta Enekorena, adiz, bikote konpentsatua da, biak dira nahiko berdintsuak" dio Martinez de Albenizek. Arkaitz Jauregi da aktiboan dagoen aizkolari bakarra. Fidel txikitari ibili zen aizkora, anaiarekin, eta gustuko du. Iñaki Vazquezek aizkora txapelketetan parte hartu zuen, duela zortzi-hamar urtera arte. Enekok egurra du lanbide, eta aizkora ere ibili izan da. "Joan zen urtean duatloiak arreta piztu zion, eta prestatzen hasi zen. Gaizkak apustua proposatu zionean esan zion primeran zetorkiola" gogora ekarri du Jauregik.

## Entrenamenduak

Laurak nola prestatzen ari diren galdetuta, irribarre maltzurra egin du Martinez de Albenizek. "Atzetik dabilta, ezer esan gabe, txakurkeriatan" (kar-kar). "Bikote bakoitzak bere martxa duelako. Ez duzu ere esango nola entrenatzen duzun. Dena den, azkenean, dena jakiten da" ihardetsi du Fidelek. Oso serio hartu dute apustua. Dieta ere zaintzen ari omen dira. "Behin apustuan sartuta, topera" dio Arkaitz Jauregik. Jauregi Japonian egon zen urriaren 10etik 21era, Euskadiko delegazioak egindako bisitan, Basque Week-en barruan aizkora eta herri kirol erakus-

**"IKUSMINA HANDIA DA, EZ DAGOELAKO ARGI ZEIN BIKOTEK IRABAZIKO DUEN"**

GAIZKA M. DE ALBENIZ

taldiak egiten, Euskadiko Herri Kirol Federazioak gonbidatuta. "Itzultzen zarenean, gogor eman behar diozu, besteak topera dabilta eta, esaten zidan Fidelek han nengoela, guztiz kezkatuta" irribarre egiten du Jauregik. Japonian pisua galdu omen zuen, baina errekuuperatzen ari da eta sasoiko dago.

Gaizka Martinez de Albenizek ongi ikusten du laukotea. "Egin behar zuten lana, egin dago. Orain, apustu egunera ahal den hobeki iristeko ongi zaintzea, ez dago besterik".

## Jauregiren erresistentzia, gakoa

Arkaitz Jauregik nola erantzun-go duen, hori izango omen da gakoa Gaizka Martinez de Albenizek. "Argi dagoena da lauretatik profesional bakarra Arkaitz dela". Iñaki Vazquezek Jauregik aizkora duen nagusitasuna nabarmendu du. "Berak aizkora tartea dominatuko du; hortaz, gu crossfit ariketetan aldea ateratzen saiatuko gara, eta aizkora Arkaitzengatik ahalik eta gertuen mantentzen". Jauregik ez du argi bere nagusitasuna horrenbestekoa izango ote den. "Balitza enborrak bata bestearen atzetik erdibitu behar direla, lan jarraian, agian Iñakiri eta Enekorri neurria hartuko nieke, baina enbor batera ez dakit asko nabaritu den. Gainera, ez naiz egurra moztera fresko sartuko. Nahiz eta crossfit ariketetan azken txanda Fideli utzi, gehienez 20 segundo izango dituzte errekuuperatzeko; egurra moztzen fundituta hasiko naiz. Nolanahi ere, aizkora ahal duan guztiena egiten saiatuko naiz, Fideli lan gutxiago utzi eta beste aurrea hartzen saiatzeko. Baina horrek ere neke bat ekarriko dit". Egurra, paga, Ka-



Jimenez-Jauregik eta Vazquez-Larrionek oso ongi prestatu dute apustua eta ikuskizun ederra esp...



Eneko Larrion eta Iñaki Vazquez. AIZKORRI KIROL ZENTROA

taliturrik jarriko ditu, bi bikoendako berdina.

Jauregik ez du uste faboritoak direnik. "Eneko eta Iñaki oso indartsu ikusten ditut, makinetan bereziki. Bizikletan asko ibilitakoa da Iñaki, eta moztzen ere ongi ibiliko da. Indar handia du. Eta Eneko arraunean eta skian primeran ibiltzen da".

Ariketa zailena zein den galdetuta, argi dute. Arkaitzendako bizikleta edo airbike lana da

zailena, "izugarri sufritzen dut". Iñakirendako traktore gurgila arrastatzea, eta Fidelek ere airbike makina aipatu du. "Normalean bizikletan ibiltzen naiz, baina, hala ere, gogorra egiten zait".

## Burunda frontoiaren eragina

Frontoia beste faktore bat izango dela argi du Martinez de Albenizek. "Orain arte Aizkorri Kirol Zentroan entrenatu dute.





...ero da Altsasuko Burunda pilotalekuan. AIZKORRI KIROL ZENTROA



Fidel Jimenez eta Arkaitz Jauregi. AIZKORRI KIROL ZENTROA

Ikusi beharko da Burundako zorua nolakoa den, zapatilek irrist egiten dieten hala ez, gurpilak ongi kokatzen asmatzen duten... hori apustuaren sorpresa faktorea izango da". Kirol teknikariak gako Arkaitz Jauregik topera zenbateraino aguantatzen duen izango dela berretsi du. "Proba osoan eustea lortzen badu... gako izango da". Jauregi, eusteko prest. "Denetarako prest egon beharra dugu".

#### Laguntzaile bana

Apustuan bi epaile egongo dira, Aizkorri Kirol Zentroko bi kide, "crossfit ariketak primeran eza gutzen dituztenak". Horretaz gain, bikote bakoitzak laguntzaile izango du. Jauregirena eta Jimenezena Floren Nazabal izango da, Jauregiren ohiko laguntzaile. "Florenek ongi gidatuko gaitu" dio Jauregik. Vazquezzen eta Larrionen laguntzaile Aizkorri Kirol Zentroan

ibiltzen den Goyo Rodriguez izango da. "Ixil-ixilik gordeta zenuen" dio, irribarrez, Fidel Jimenezek. "Aizkora gure indargunea ez denez, Goyo aukeratu dugu crossfit probetan lagundu eta animatzeko" erantzun du Vazquezek.

#### Oso irekia

Lau kirolarien apustuak, atzetik apustu gehiago ekarri ditu. "Jendea gure lanaren inguruan apustuetatik egiten ari da. Nik entzun dut dirua Iñakiren eta Enekoren alde dagoela" dio Jauregik. "Jakina, asko entrenatu dute" azaldu du Fidel Jimenezek. "Apustuetan denetatik dago" erantzun du Iñaki Vazquezek.

Altsasun halako apusturik ez da egin. "Behintzat hori dio Eneko Larrionek, halakorik ez dela egon". Ikusmina handia da, "batez ere ez dagoelako garbi nork irabaziko duen. Bakoitzari ariketa bat doakio ongi, eta bikoteak orekatuak dira. Apustua irekita dago, guztiz" dio Aizkorriko kirol teknikariak. "Eta horrela izan dadila. Zerbait parekatua egin nahi genuen, ekitaldi polita izateko. Onenek irabaz dezatela" argi du Fidelek.

Crossfita eta aizkora, konbinazio polita. Argi dago kirol ezberdinen arteko duatloiek, pentatloiek eta bestelakoek geroz eta ikusmin handiagoa pizten dutela, "aizkora hutsak baino gehiago. Izan ere, aizkora, hasieratik ikus daiteke txapelketa nola bukatuko den. Pentatloiarekin eta halakoekin, ordea, ez da hain argia. Harri jasotzaile batek agian 2 minututan 25 altxaldi egingo ditu, baina korrikako atalean nola ibiliko den ez dakizu. Gurean ere antzekoa gertatuko da" azaldu du Jauregik.

Apustuko lanak bukatzeko ordubete inguru beharko dela uste du Martinez de Albenizek. "Hala izan ziren lehenengo kalkulak". Jauregik ez du uste. "Irabazten duenak ordu bat jaitsiko du, dezente gainera".

#### Lasai, baino urduri

Kirolariek momentuz lasai dudelako aitortu dute. "Ni nahiko lasai nago, momentuz. Baita Eneko ere" dio Vazquezek. Martinez de Albenizek ez du uste. "Barrutik daramate. Fidel, esaterako, oso urduri dago". Urduri egon dela aitortu du Fidel Jimenezek, baina azkenaldian lasaigo dagoela. Jauregi ohituta egon beharko litzateke txapelketetara, "baina, naizenerako, nahiko ongi eramaten ari naiz" dio, irribarrez.

#### Sarrerak

Hasieran apustua Aizkorri Kirol Zentroan zen egitekoa, goizez, baina piztu zuen ikusmina ikusita, txiki geratu zen tokia. Horregatik Burunda frontoia alokatzea erabaki zuten, eta apustua arratsaldean egitea. "Jakina, horrek aurrekontua dakar: frontoia arratsalde guztirako alokatu, aseguru kontratatu, aizkora lanak tartean daudelako, megafonia eta bestelako gastuak... Horregatik, 5 euroko sarrera kobratuko dugu. Hurrek, aldiz, dohainik izango dute sarrera. Dagoeneko 200 sarrera saldu dira Aizkorri Kirol Zentroan. Egunean bertan Burunda frontoian salgai egongo dira".

Giro ederra espero da. "Jendea ekitaldi ezberdina ikusteko gogotsu dago. Ea animatzen diren, larunbat arratsalderako plan polita da. Esan digutenez, kuadrillek bazkariak eta afariak antolatu dituzte".

Apustua "ikusgarria" izango dela uste du Martinez de Albenizek. "Arkaitz sekulako bonba

## Apustuko lanak

Bai crossfiteko lanetan, eta baita enborrak moztzen, txanda librean aritu beharko dute kirolariek.

- **1.500 m ski egitea.** Makina bertikala da, eskuetarako bi helduleku ditu eta goitik behera mugitu behar dira besoak, eski mugimendua bailitza.
- **Kanaerdikoa erdibitu.**
- **Traktorearen gurpila plaza batera (20 m) kokatuta dago.** Kirolariak, bere tokitik mugitu gabe, sokari tira eginez berarengana ekarri beharko du gurpila, arrastaka. Sei plaza egin beharko dira guztira.
- **Kanaerdikoa erdibitu.**
- **4 km airbike egin.** Bizikleta lana.
- **Kanaerdikoa erdibitu.**
- **Arraun makinarekin 1.500 m egin.**
- **Kanaerdikoa erdibitu.**
- **Traktorearen gurpilari bueltak ematen edo gurpila irauliz 10 plaza osatzea.**
- **Kanaerdikoa erdibitu.**
- **Txingak:** 25 kiloko txingekin 30 plaza egin.
- **Kanaerdikoa erdibitu.**

da, mugaraino joango delako. Lauren artean gehien pikatzen dena da. Hil arte borrokatuko du, hori argi izan. Fidelek Arkaitz Jauregi lagundu beharko du. Iñaki eta Eneko bikote konpentsatuena da. Iñaki ongi ibiliko da aizkora, eta crossfit makinetan vatio gehien mugitzen dituen da, agian indartsuena. Enekok nahiko ongi laguntzen dio, agian esplosiboena da. Erritmo bat du, eta erritmo horretan konstantea da". "Ongi atera dadila, jendeak goza dezala eta onenek irabaz dezatela" espero du Vazquezek.


Apustua bukatuta, guztiak elkarrekin joango dira afaltzera, euren laguntzaileekin, epaileekin eta gertuko enekin. "Bikote batek besteak baino umore ederragoa izango du, baina gustura egongo gara. Egun polita izango da".



## PILOTA Zabala eta Yaben, Nafarroako Gazteen Lau eta Erdian

Nafarroako Gazteen Mailako Lau eta Erdian, Guillermo Mazo Memorialean, final hamaseirenak jokatu dira datorren astean Uhart Arakilen eta Lekunberrin. Zabalak (Irurtzun) txapelketan aurrera egin du, urriaren 31n Setuaini (Ardoi) 22 eta 11 irabaztean. Aldiz, Markina (Irurtzun), txapelketatik kanpo geratu da urriaren 25ean Martinikorenaren (Ultzama) kontra 13 eta 22 galdu eta gero. Final hamaseirenetan Yaben (Irurtzun) sartuko da jokoan.

Azaroaren 7an, asteartea, Uhart Arakilen (18:00) jokatu diren final hamaseirenetako partiden artean, Yabenek Santesteban (Beti Onak) izango du aurkari, eta Zabalak Antimasberes (Lagunak). Gainontzeko partidetan, Barberenak (Ultzama) Cirizaren (Huarte) kontra jokatu du, eta Okiñenak (Ultzama) Figuroaren kontra (San F. Javier). Lekunberriko final hamaseirenak azaroaren 8an jokatu dira (18:00), baina bertan ez dago sakandarrik.



Martija, pianoa jotzen. VAMOS POR MOVISTAR +

## PILOTA Julen Martija, pilotari pianista Vamos Movistar +-en

Vamos por Movistar Plus+ek Julen Martija pilotariari buruzko bideoa argitaratu du Twitterreko bere kontuan, "El pelotari pianista" izenburupean. Etxeberriko atzelaria pianojole aparta da. Bideoan jasotzen denez, Martijak kontserbatorioan piano ikasketak egin zituen bosgarren ikasturtera arte. Bideoko irudi batzuk Martijak Altsasuko festetan jokatu zuenean hartu ziren.



Emakumezkoen podiuma. Olatz Azazeta erdian, alboan Estibaliz Iturralde eta Maider Azpilikueta dituela. ZUBIKO PHOTOGRAPHY

# Olatz Azazeta azkarrena Betagarri Trailean

**MENDI LASTERKETAK** Korrikalari altsasuarrak ez zuen areriorik izan Antzinen jokatuako III. Betagarri Traileko proba luzean. Gizonezkoetan, Ekhi Congil etxarriarra seigarren sailkatu zen. Proba laburrean sakandar dezente lehiatu ziren

Igandean III. Betagarri Trail lasterketa jokatu zen Antzingo Lokiz mendizerran, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatutako Navartrail Koparako puntuagarrria zen azken proba. Bi distantzian jokatu zen: luzea (22,6 km) eta motza (8 km).

Lasterketa luzean (22,6 km) Jesus Maria Mauleon (1:44:11) arroniztarra eta Goizeder Aza-

zeta (2:17:52) altsasuarra gailendu ziren, alde handiz. Azazeta ederki aritu zen; 7 minutu atera zizkion Estibaliz Iturralderi (2:24:37), eta 13 minutu Maider Azpilikueta (2:30:58). Gizonezkoetan Ekhi Congil etxarriarra Top 10ean sailkatu zen, seigarren sailkatu baitzen (1:56:44). Asier Palacios 26. iritsi zen (2:17:57), eta Carlos Mañeru 32. (2:20:07).

Lasterketa motza (8 km) Thibaut Bertrandek (35:10) eta Maite Murgiak (47:33) irabazi zuten. Sakandarrei dagokienez, Eneko Garasa 32. iritsi zen (45:47); Noureddine Jdi Baba 36. (46:13); Ismael Lopez de Goikoetxea 38. (46:53); Jorge Vitoria 39. (46:54); Inge Zelaia 82. (57:14); Kimetz Arregi 87. (59:01); Amaia Oiarbide 90. (1:01:32); eta Sonia Alonso 91. (1:01:33).

## 79 igerilari Zelandin

**IGERIKETA** Larunbatean Altsasuko Zelandi kirolegiari Nafarroako Kirol Jokoen Nafarroako Igeriketa Txapelketako kimuen mailako lehen saioa hartu zuen. Guztira 79 igerilarik parte hartu zuten, 400 m libre eta 100 m bular estilotan. Tartean zeuden Sakana Igeriketa Taldeko Alex Andrei Soceda, Eneko Gallego Parrisas eta Edahi Diaz Mintegi.



SAKANA IGERIKETA TALDEA

## FUTBOL PREFERENTEA

**7. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Infanzones - Altsasu 2-2

**SAILKAPENA**  
PREFERENTEKO 1. MULTZOA  
1 Burlades B 16  
3 Altsasu 15

**HURRENGO JARDUNALDIA**  
AZAROAK 5, IGANDEA  
13:30 Itroa Huarte B - Altsasu (Uhart Iruri.)

**Altsasu, sentsazioak berreskuratzera**  
Goiko postuetan jarraitzeko erronkarako Altsasuk lan ona egin nahi du Uhartan.

**Etxarri, Kopan aurrera; Altsasu, bidean**  
Asteazkenean, azaroaren 1ean, Nafarroako Futbol Federazioko Kopako final zortzirenak jokatu ziren. Etxarri Aranatzek eta Altsasuk elkarren kontra jokatu zuten eta Etxarri sailkatu da final laurdenetarako, Altsasuri 2 eta 0 irabazi eta gero. Altsasuk agur esan dio kopari.

## EMAKUME PREFERENTEA

**6. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Gares - Altsasu 1-1

**SAILKAPENA**  
EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA  
1 Tudelano 16  
9 Altsasu 1

**HURRENGO JARDUNALDIA**  
AZAROAK 4, LARUNBATA  
17:00 Idoya - Altsasu (Oteitza)

**Altsasuk lehen puntua lortu du**  
Altsasuk itxura hobea eman zuen azken partidaren eta motibatua dago.

## FUTBOL ERREGIONALA

**5. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Etxarri Aranatz - Baztan B 5-3  
Lagun Artea - Zizur 1-1

**SAILKAPENA**  
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA  
1 Rotxapea B 13  
3 Etxarri Aranatz 10  
7 Lagun Artea 7

**AZAROAK 5, IGANDEA**  
12:00 Berriozar - Etxarri A. (Berriozar)  
Lagun Arteak atsedean jardunaldia du

**Etxarri, Berriozarren kontra**  
Garaipenari esker, hirugarren jarraitzen du Etxarri Aranatzek. Kopan aurrera egin duenez, animoz jokatu du Berriozarrekin.

**Lagun Arteak atsedean hartuko du**  
Lagun Arteak garaipena eskuan zuenean, azken unean bana berdindu zion Zizurrek. Atsedena ongi etorriko zaio, bolada ona berreskuratzeko.



# Olatzagutia, zinema herria

'Navarra, Tierra de Cine' Film Laburren Jaialdian parte hartu du Burundako herriak, eta aurreko asteburuan Imanol Reta zinemagileak 'Última visita' film laburra grabatu zuen herrian. Azaroaren 30an aurkeztutako film laburren proiektzioa izanen da

**Erkuden Ruiz Barroso** OLATZAGUTIA Olatzagutiak Navarra, Tierra de Cine Film Laburre Jaialdiaren hamaikagarren edizioan parte hartu du, eta urriaren 27an eta 28an zinema plato bat bihurtu zen, Imanol Reta zinemagilearen eta bere lan taldearen *Última visita* film laburrearen grabazioan. Lana post-produkzio fasean dago, eta egileak azaroaren 22an aurkeztu beharko du. Azaroaren 30ean, osteguna, 19:00etan, herrian grabatutako film laburra eta festibalean parte hartu duten beste bederatzitan proiektzioa izanen da, Olatzagutiko kultur etxean. Aurkezpenean Reta izanen da.

Navarra, Tierra de Cine jaialdia herrialdearen turismoa sustatzeko jaialdi bat da. Bi helburu ditu: fikzioaren bidez eta formatu zinematografikoan Nafarroako turismoa sustatzea eta, bestetik, Nafarroa zinema plato bezala bultzatzea, bertako ondare historiko eta kulturala eta naturalaren aniztasuna bultzatuz. Nafarroako Gobernuak Turismo departamentuak eta Navarra Film Commissionek sustatutako ekimena da, Kultura departamentuaren laguntzarekin.

Film laburren jaialdian hamar herri aurkeztu dira aurten: Viana, Iruñea, Peralta, Allo, Ribaforada, Luzaide, Udax, Argedas eta Olatzagutia. Beste alde batek, zinemagileek, parte hartzaileek, haien proposamenak eta gidioak bidaltzen dituzte, eta epaimahaiak aurkeztutako lan guztietatik hamar aukeratu ditu eta herri bat egokitu zaie. Epaimahaia Miguel Gomez-Tejedor gidoilariak eta Euskal Herriko Gidoilari Profesionalen Elkartearen batzordekideak; Patxi Burillo arkitektoak eta zinemagileak; Iñigo Floristan gidoilari, zuzen-

dari eta ekoizleak; Sara Brun kazetaria, idazlea, gidoilari eta zuzendariak; Angela Mejias Hendaia Film Festivaleko zuzendariak, eta Marcos Perera Navarra, Tierra de Cine Film Laburren Jaialdiko zuzendariak osatzen dute. Film laburrek gehienez hamar minutuko luzera izan behar dute, eta gehienbat herriari emandako ikuspuntua baloratuko du epaimahaiak.

## Herria platoa

Olatzagutiko Udalarri proiektu "interesgarria" iruditu zitzaion eta parte hartzea erabaki zuen, eta urriaren 27an eta 28an Imanol Reta zinemagilearen bisita eta *Última visita* film laburrearen errodajea hartu zuen. "Oso ongi" joan zela esan dute herriko Kultur zerbitzuetik. Reta iritzi berekoa da, eta Olatzagutiaren harrearekin mirestuta gelditu da.

Retak aspalditik eta ongi eza gutzen du Navarra, Tierra de Cine jaialdia. "Lehiaketa honetan hainbat alditan aktore bezala lan egin dut, eta lau bat gidoi aurkeztu ditut. Harreman estua daukat, modu batera edo bestera". *Última visita* bere bigarren film laburra da. Jaialdira aurkeztutako gidioan "landa eremu bat" aukeratu zuen; "egia esan, Olatzagutia ez nuen eza gutzen, ez nintzen aurretik inoiz egon, baina oso pozik gelditu naiz esperientziarekin". Grabazioa baino aste pare bat lehenago bertan egon zen, lokalizazioak bilatuz. "Kanpokoak eta barru-

**"DENA OSO-OSO ONGI JOAN DA; MIRESGARRIA IZAN DA, BAINARIK EZ DUT" IMANOL RETA**

koak ikusten egon nintzen, gutxi gorabehera non eta nola grabatuko genuen ikusteko. Virginia Alonso kultur teknikariarekin bildu nintzen ere, beharrrak eta abar ikusteko".

Film laburrean Olatzagutia ikusiko da, eta Olatzagutia dela nabaritutako da. "Pertsona baten eta bere maskotaren arteko harremana erakusten du. Olatzagutia ikusiko ditugu bertan, baita Urbasa ere". Protagonista, Reta bera, hiri batean bizi da, eta herrira joatea erabaki du, "izebaren etxera". Olatzagutian grabatzea ez zitzaizola kostatu azaldu du Retak, "asko gustatu zitzaion, txikitxoak eta aldi berean baditu lauzpabost mugarrak. Herriak berak esaten dizu hau da eskaintzen dudana. Ez zara asko erotu behar". Bertan grabatzea "erraza" izan dela esan du Retak. "Oso-oso ongi egon da, dena miragarria izan da. Bainarik ez dut". Retaren lan taldean, besteak beste, Daniel Bengoechea argazki zuzendari altsasuarrak parte hartu du, baita Olatzagutiko zenbait figurantek parte hartu dute ere. Aktoreak Reta, Neli Oyaga, Silvia Marinho eta Lehena dira.

Grabazioaren ondoren lana post-produkzio fasean sartu da, eta dagoeneko audioak grabatu dituzte eta kartela egin dute. "Orain edizioa, montajea... denak denbora behar dute". Azaroaren 22an aurkeztu behar du lana eta azaroaren 30ean, osteguna, Olatzagutiko kultur etxean aurkezpena egingen du, parte hartu duten hamar film laburrekin batera.

Film laburren lehiaketak sei saritu izanen ditu, 2.500 eta 250 euro tartekoak, eta sari banaketa Peraltan abenduan egingen den ekitaldian izanen da.



Imanol Reta, eserita, eszena bat grabatzen. UTZITAKOIA



Daniel Bengoechea altsasuarrak kamerarekin eszena bat grabatzen. UTZITAKOIA



Imanol Reta eszena bat grabatzen. UTZITAKOIA





'Hondamendia' ikuskizunaren irudia. UTZITAKOA

## 'Hondamendia' ikuskizuna, lortian

Azaroaren 11n, larunbata, Berria-k, Badok atariak eta Sakanako Mankomunitateak antolatutako Axut! eta Artedrama konpainien dantza, musika, soinua eta irudia uztartzen dituen antzezlena izanen da, Altsasun

ALTSASU

"Zaborra metafora bat da batzuetan. Baina zer metafora da kiratsa darion hau?". *Hondamendia* Harkaitz Cano idazleak idatzitako eta Ximun Fuchs antzerkigileak zuzendutako antzezlana 2020ko bi gertaera ditu abiapuntuan: batetik, otsailean gertatutako abortegi baten kolapsoaren ondorioz hil ziren bi langileen istorioa eta, bestetik, martxoan heldu zen covid birusa eta mundu osoan izan zituen eraginak. "Osasun arazo batek bazterrean laga duen irrati esataria, Zaldibarko abortegiaren luiziarri hitzak ematen saiatuko da. Nola adierazi samina mundua pandemia baten menpe izoztu denean?",

dio sinopsiak. *Hondamendia* ikuskizunaren ardatzan kontraesnak agerian uztea izango da: esaten dena, egiten dena eta nahi dena. "Erronka pertsonaien barne munduan kokatzen da".

Udazkeneko Sakanako Berriak taldeak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskal kultur ekimenak antolatu izan ditu, eta aurten *Berriak*, Badok atariak eta Euskara Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren eta Altsasuko Udalaren laguntzarekin, *Hondamendia* antzezlana ekarriko dute Iortia kulturgunera. Emanaldia azaroaren 11n, larunbata, 19:30ean, izanen da, eta sarrerak Altsasuko kultur gunearen webgunean eta

txarteldegian eta *Berriaren* webgunean eros daitezke Prezioak: alde aurretik erosiz gero, 12 euro eta 10 euro Berrialagunek eta 14 euro egunean bertan erosita eta 12 euro Berrialagunek.

Axut! eta Artedrama konpainiak elkarlanean sortu duten ikuskizunak dantza, musika, soinua eta irudia uztartzen ditu. Guztira 23 pertsonaia ateratzen dira, zortzi antzezlek interpretatuak, hala nola Ander Lipus, Maite Larburu, Manex Fuchs, Maialen Belaustegi, Ruth Guimera, Eneko Gil, Ane Sagues eta Jon Ander Urresti. Koreografia Philippe Ducourena da, eta musika, berriz, Maite Laruburuk eta Asier Iturtek sortu dute.

## Antzerkia eta dantza, bi mundu batean

Eva Azpilikueta Martinez antzezle altsasuarraren "betiko" zaletasuna dantza da, eta orain eszenatokian ere diziplinaz disfrutatzen du Kon Moción konpainiaren 'Everyone' ikuskizunean. DNA jaialdiaren ondoren, azaroaren 9an, osteguna, MU Nafarroako Unibertsitateko Museoan emanaldia egingen dute

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Niretako sentsazio oso-oso desberdina da. Egia da ni oso antzezle fisikoa naizela, eta sortzen ari naizenean nire tresnetako bat gorputz espresiora eta antzerki fisikora jotzea dela, baina dantza diziplina guztiz desberdina da". Duela urtebete inguru hasi zen Eva Azpilikueta Martinez antzezle altsasuarra Becky Siegel dantzari eta dantza zuzendariaren Konmoción konpainiarekin lanean, eta DNA jaialdiaren barruan hainbat emanaldi eman dituzte. Hurrengoa azaroaren 9an, osteguna, 19:30ean, Nafarroako Unibertsitateko Museoan *Everyone* ikuskizuna egingen dute. "Oso-oso sartuta nago dantzaren munduan, oso motibatuta".

Udazkeneko sasoi hau, gainera, mugitua dela esan du altsasuarrrak: "Orain badirudi mundua amaizten ari dela eta ikasturtearen lehenengo hiruhileko hone-tan, urteko azkena dena, asko programatzen da eta aktibitate handia dago". Proiektu eta ideia berriak loratzen hasi direla ere esan du antzezleak, "proposamen asko ditut, eta hiru aste hauetan gauza asko erabaki behar ditut. Baina pasako dugu sustoa, trapolina hartuko dugu, eta martxa hartuko dugu". Besteak beste, *104. haurra* antzezlana mustuko du Jokin Oregi zuzendariarekin, Yarleku konpainiaren Punto Gunean, Azpilicuetak lan egiten duen tokian, sortzen ari direna.

Antzezlea eta dantzaria, "bai, orain esan daiteke baietz". Azpilicuetaren dantzarekiko zaletasuna aspalditik dator. Nafarroako Antzerki Eskolan interpretazioa ikasten ari zenean ezagutu zuen Siegel: "Berak dantza ga-

raikidea erakutsi zidan. Hasi-ratik gustatu zitzaidan. Flipatzen nau. Izugarri gustatzen zait, barruan zerbait mugitzen dit. Medizinala da, deskonektatzen dut, espazio libre bat da". Dantzarekin "askatasuna" sentitzen duela esan du artistak. "Hau guztia berarekin ezagutu nuen, eta ordutik ez dut inoiz guztiz alde batera utzi". Antzerki Eskola bukatu zuenean Siegelekin Alemaniako topaketa batera joateko aukera izan zuen, "eta bertako antzezleekin eta dantzari-ekin elkarturkea egin genuen. Oso atsegingarria izan zen". Baina ordutegien kontuagatik, logistikagatik eta abarregatik dantza utzi behar izan zuen.

Dantzaria

"Beti esan dut dantzari frustratua naizela. Beti izan dut barruan, baina egoerengatik ezin izan dut guztiz garatu". Duela zenbait urte dantzan hasi zen berriz, Siegelen eskoletara joaten hasi zen, utzi zuen, eta Irantzuz Gonzalez Dantza Eskolan ere izena eman zuen, "baina Altsasuraino etortzea ezinezkoa egiten zitzaidan". Aurreko urtean Siegelekin hasi zen berriz, "eta esan zidan ikuskizun bat zuela prest eta bi dantzari behar zituela eta ea nahi nuen proiektu horretan sartu". Baiezko boro-bila eman nion. "Niretako hau amets bat da; opari handi bat egin dit". Bizitzan "oso kaotikoa" dela aitortu duen arren, arlo profesionalen "oso exigentea" da, eta ikuskizunarekin hasi zenean, "berarekin entrenatzen hasi nintzen, espazio bat hartzen nuen berak markatzen zidana lantzeko... Lan handia egin dut

## Ondarraren jaiotetxea

Urriaren 28an Baikaikun Lorenzo Ondarraren jaiotetxean plaka mustu zuten Rosa Elena, Luis Tomas eta Maria Jesus Ondarra, kaputxinoaren eta musikariaren bilobek. Omenaldiak Igor Ijurraren Ondarrari buruzko hitzaldi batekin eta Erkudengo Ama Abesbatzaren kontzertuarekin jarraitu zuen. Txistulariek ere parte hartu zuten ekimenean.







Eva Azpilicueta, behean erdian, 'Everyone' dantza ikuskizunean. TXISTI PHOTO

bakarrik eta baita kideekin ere, erritmoa hartzeko".

*Everyone* ikuskizuna DNA Nafarroako Gobernuak dantza garaikidea sustatzeko sortu zuen jaialdiaren erresidentzia batean sortu zen. "Beraiek aurretik mustuta zuten, eta ni beranduago iritsi nintzen. Dena egin zegoenean sartu nintzen, eta landu behar izan nuen". Azpilicueta "asko inplikatu" da obran, eta Siegelekin ematen dituen eskolak ez ezik, Nafarroako Dantza Eskolan dantza garaikidean eta aurten klasikoan ere hasi da. "Teknika eta beste arlo batzuk lantzeko".

"Beckyrako dantza gizartearen indar eraldatzailea da, antzerkia bezala. Eszenatokian erakusten ari garena zerbaitetarako izatea; mezu bat bidaltzeko, galdera bat airean uzteko...". Konmoción konpainia dantza ikerketa modu bat bezala ulertzeko sortu zela azaldu du altsasuarrak. "Arte diziplina desberdinen konexio puntu bat da ere bada". *Everyone* lanak "norbanakoa eta osotasuna" jorratzen ditu. "Galdera bat: bat gara edo bakoitza gara? Gizarte bat gara, nukleo bat... Hortik doa metafora". Gizakiaren aniztasunaz ere hitz egiten du lanak, gehienbat inmigrazioaren auziaz: "Becky askotan aitortu du eta ikuskizunaren amaieran beti esaten du berari gustatuko zitzaioala jatorri desberdinetako dantzariekin dantzari zerrenda osatzea, eta asko saiatu da, baina lanean hasi den jendeak arrazoi

desberdinengatik utzi behar izan du". Dantzaren bidez arrazismoa eta xenofobia landu nahi ditu: "Nola den toki berri batean sartzea, arrazoi oso gogorrenatik etorri diren horiek nola hartzen ditugun, nola enpatizatzen dugun, nola gorputz horiek oztopo asko dituzten gizartean sartzeko". *Everyone*-k "zerbait oso handia" duela esan du Azpilicuetak, "ikusleak gauza asko ikusten ditu".

#### Inprobisazioa

Siegelekin hasieratik "konektatu" zuela esan du Azpilicuetak, "gehienbat berak eskaintzen duenarekin, berak irakasten digunarekin". Dantzari eta koreografoak inprobisazioa lantzen du, "eta berak esaten duen bezala, dantzari guztiek ez dute inprobisatzeko gaitasunik. Teknika baino askoz gehiago da. Teknika landu behar da, jakina, baina gehienbat dantzakideak entzutea

**"BETI ESAN DUT DANTZARI FRUSTRATUA NAIZELA; BARRUAN IZAN DUT"**

**"ANTZERKIAK ETA DANTZAK OSO DESBERDINAK DIREN EMOZIOETARA ERAMATEN NAUTE"**

eta espazioa konpartitzea da". Inprobisaziorako oso kreatitboa izan behar zarela esan du altsasuarrak, "dantzaria eta koreografoa zara aldi berean. Berak pautak markatzen dizkigu, eta istorio batean gaude, zerbait kontatzen ari gara, baina inprobisatzen ari gara". Inprobisaziorarekin "oso ongi" konektatzen duela esan du Azpilicuetak, "kideekiko entzumena ulertzen dut, antzerkian eta dantzan".

Nola kontatzen da istorio bat inprobisazioaren bidez? "Magia dirudi, baina lan handiarekin eta entrenamendu askorekin lortzen da. Elkarrekin lan asko eginez. Familia, ekipoa, taldea, niretako ezinbestekoa da antzerkian eta dantzan, baina dantzan askoz gehiago". Inprobisatzeko taldeko lana "ezinbestekoa" dela esan du Azpilicuetak. "Osatu beharreko mapa bat duzu, eta sei zentzumenak irekiak izan behar dituzu. Egunero. Egunero zerbait desberdina delako". Hori da ikuskizun honen "marabilla". "Musika pieza bakoitzak eta eszena bakoitzak pautak oso argiak ditu. Hala, koreografiak daude, baina gutxienekoak dira ea teknikoki oso-oso zailak". Energiaren eta "testuren" arabera mugitzen dira: "Hitzak izan daitezke: aurkitu, interesgarria, forma, sikosia, neurotikoa...". Hitzekin azaltzeko zaila dela aitortu du Azpilicuetak.

Oso gauza "interesgarriak eta desberdinak" ezagutzen ari da Azpilicueta. "Konturatzen zara ezer esan gabe ere asko esan de-

zakezula Indar horretan sartzea, dantzariak eman didaten indar hori jarraitzea, istorio horretan sartzea...". Dantzan hasten direnean bakoitzak bere mundua sortzen duela esan du. "Gure gorputzaren eta emozioen bidez adierazten saiatzen gara". Bucaeran hunkitu dela aitortu du, bereziki eszena batek "asko mugitzen" diola esan du.

#### Deskonektatzea

"Antzerkiak gorputzaren kajo batzuetara eramaten nau eta dantzak oso desberdinak diren beste batzuetara. Antzerkiak samurtasunetik, barrutik eta abarretik mugitzen nau, eta dantzarekin leherketa bat da". Azpilicuetari dantzarekin sentitzen duena hitzekin adieraztea kontatzen zaio: "Gorakada bat da. Eraldatzen nau. Antzerkiak ere,

bai jakina. Baina emozio desberdinak dira; diziplina bakoitzak ematen didana desberdina da". Bestetik, dantza ikuskizun batean lan egiteko "beste konstantzia bat" eskatzen diola ere esan du: "Antzerkian testua prestatu behar duzu, ikerketa zati bat ere badauka, baina dantzak konstantzia eta lan handia eskatzen ditu, fisikoki prestatu behar zara... Ezin duzu utzi". Dantzaren "zale amorratua" izan da betidanik Azpilicueta, eta "erantzukizuna" sentitu zuen oholtzara dantza-tzera igo zenean. "Pixka bat urduriago jartzen naiz. Baina asko disfrutatzen dut. Deskonektatzen dut, nerbioak deskonektatzen ditut, eta eszenatokian egiten ari naizenarekin kontzientegoa naiz". Dantza eta antzerkia elkarrekin doazen bi diziplina direla gaineratu du.



## BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

## Soinua







Jose Mari Olasagarre, Antonio Huarte, Jose Gorriti, Pedro Mari Gorriti eta Felix Goikoetxea, jubilatutako boluntarioak.

# "Igandean etxez etxe elikagaiak bilduko ditugu"

Igandean Iruñeko Algara peñak Patata Operazioa egingo du Urdiaindik Satrustegira bitartean, Hermanitas de los Pobres komentua aldeko jaki bilketa egiteko. Uharteko Arakilgo jubilatuek herriko bilketa egiten diete peñakoei, bilketan laguntzeko

**Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL**

**1 Uharteko jubilatuen elkartera noiz hasi zen Patata Operaziorako Uharteko Arakilgo bilketa egiten?**

Hamar urte baino gehiago izanongo dira. Gogoan dugu meza elizkizunetik atera, eta Motxale etxean zerbait hartzen ari gine-la, erabakia hartu genuela.

**2 Zergatik? Iruñeko Algara peñakoei lana errazteko?**

Bai. Noizbait gertatu izan zaigu patata zakua etxeko atean utzi, eta zakua bertan geratzea, Pata-

ta Operaziokoak aurretik pasa zirelako edo bestelako arrazoiengatik. Edo peñakoak bazkaltzen geundela pasatzea, eta jendea ez ohartzeari. Edo dena delakoa. Pena ematen zigun. Horregatik, Uharteko Arakilgo bilketa jubilatuek egitea erabaki genuen.

**3 Iruñeko Algara peñakoei ongi hartuko zuten zuen ekimena.**

Jakina. Erabakia hartu genuenean eurekin jarri ginen harremanetan –Fernando izeneko batek du ardura– gure ekimenaren berri emateko. Izan ere, Urdiainen gertatu izan zen behin talde bat bertatik pasa zela, Patata Operaziokoak zirela esaten; ekarpenak jaso eta aire egin zuten. Eta ez ziren Patata Operaziokoak. Hortaz, badaezpada abisua eman genuen.

**4 Nola egiten duzue elikagai bilketa?**

Igande goizean elkartzten gara. 9:30ak aldera gosalduta, furgonetan igo, eta etxez-etxe Uharteko txoko guztietatik pasatzen gara, herriko megafonian Patata Operazioa egiten ari garela esaten eta uhartearrei Hermanitas de los Pobres edo Behartsuen Haurrideak komentua eta haien zaharren egoitzaren aldeko elikagaiak edo borondatea eskatuz. Kontua da aurten meza elizkizuna 11:00etara aurreratu dutela (joan zen urtean 12:30ean zen) eta meza baino lehenago egin beharko dugula bilketa.

**5 Non biltzen dituzue elikagaiak?**

Hasieran plazan uzten genuen jasotakoa, baina euria zela eta beste... egun, Motxale tabernaren ondoan dagoen Antonio Huarteren bajearen uzten dugu. Baldintza batekin: peñakoei bildutakoa egunean bertan edo beranduenez hurrengo egunean jasotzea. Momentuz, egunean bertan bildu dute.

**6 Iruñeko Algara peñakoei bajea zabaldu eta listo!**

Hori da. 13:00ak edo 13:30ak aldera etortzen dira, euren eguneko martxaren arabera, eta Uharteko Arakilen bildutakoa kargatzen dute. Kuadrilla polita etortzen da, familia osoak.

**7 Zer ematen du jendeak?**

Patatak, kuiak, tipulak, alubiak, porruak, sagarrak, dirua...

denetatik. Joan zen urtean patata gutxiago bildu genuen, ez zegoelako asko. Aurten ere harriak Uharteko Arakilgo zenbait baratzetako patatak barratu zituen. Ikusiko dugu zer jasotzen dugun.

**8 Lehen etxe guztietan lantzen baratzeari, eta gehiago jasoko zen.**

Bai, baina geroz eta gutxiago gara baratzeari dugunok, lau edadetuk. Entzuten da gazte batzuek baratzeari jartzera animatzen ari direla, ea egia den.

**9 Uharteko Arakilgo Donibane Jubilatuen Elkartereko boluntario taldeak lan gehiago egiten ditu?**

Garai batean Nafarroako Elikagai Bankurako elikagaiak jasotzen genituen, baina pandemiaren kontuarekin utzi genion. Bestalde, jubilatuen boluntariotza taldearekin jende nagusia laguntzen genuen, mojetara elikagaiak eramaten genituen, Agiri despopulatuko indusketa-lanetan lagundu genuen... Eduardo Gonzalo zenarekin boluntariotzan lan handia egin genuen. Gizon fina zen, borondate handikoa; elkartereko juntan egon ginen berarekin. Makina bat lan egiten genituen. Bere falta sumatzen da.

**10 Uharteko Arakilgo Donibane Jubilatuen Elkartereko martxa nolako da?**

Jubilatuaren taberna zabalik dago; Gurutze Retegi da arduraduna. Txangoak egiten dira, Blanca Arrizabalagak urteroko poesia errezitaldia antolatzen du eta bestelako ekitaldiak ere egiten dira. Baina jendea gutxiago ateratzen da. Mus partida gutxiago jokatzen dira. Pandemiaren eragina nabarmena da.

**11 Aurten igandean egingo den Patata Operazioak 60 urte beteko ditu. Urte asko dira.**

Bai, Iruñeko Alegria edo Algara peñak lan polita egiten du, eta uharteari eta sakandar guztiak ekimenarekin bat egitera animatzen ditugu. Badirudi Hermanitas de los Pobres komentuan ere ez direla garai onak bizitzen ari. Lan handia egiten dute adineko jendeari euren egoitzan aterpea ematen. Behar handia dute, eta bildutakoa oso ongi etorriko zaie.

**EGUTEGI PERTSONALIZATUAK**  
**Diseinu, eredu eta formatu ezberdinak. Aukeratu zurea!**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

2024

URTARRILA							OTSAILA						
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31					29	30	31				

Zure argazkia hemen!

**gik**

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436  
 info@gkomunikazioa.eus  
 www.gkomunikazioa.eus  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu